

Emendakinak

Ponentzien
alde
bateri
emendakinak



Biltzarra

Donostia

Emendakinah

2.000 urterako bidean
koiuntura gakoak

2.000 URTERAKO BIDEAN: KOIUNTURA POLITIKO- EKONOMIKOAREN GAKOAK

1. orri GUZTIAK. ESALDI guztiak.

Ponentzia guztian.

Proposamena.

"Euskadi" hitza, "Euskal Herria"z aldatzea.

Zergatiak:

"Euskadi" hitza, Sabino Aranak asmatutako neologismo bat izateaz gain, Ezker Abertzalearen garapen eta aurrerapausoei inungo mesederik egiten ez dion "herrialdekeri" bat izkututzen du.

Emendagilea: Koldobike Munilla. Erribera-Erdialde (Nafarroa).

2. 9. orria . 7. ESALDIA.

1.1.2. Enpresa Multinazionalak.

Proposamena:

Erantsi "eta WTO", "GATT"en ondoren.

Zergatiak:

Uruguayko Ronda ondorioz, 95-1-1 geroztiz GATT World Trade Organisation bilakatu zen. GATT (Kapitalaren lanabesa) bezala da, baina Hazienda ezik, merktu ezberdinak aztertu eta antolatuko ditu.

Emendagilea: Enrike Galarza Prieto. Iruñea (Nafarroa).

3. 10 orria 14.ESALDIA

1.1.4. Bloke inperialistak.

Proposamena:

Parrafoaren amaieran zera geitu: "Gerra inperialistak, indar faxista eta xenofoboan bersortzea, giza garaipenei erasoak, langabezia eta bazterketaren zabalkuntza, diru eta berekoitasuna gurtzean oinarritutako alienazio orokorra, askatasun eta eskubideen murrizketak, korrupzio orokortua, kapitalismoaren itxurazko garaipenaren ondorio dira, sistema anker eta basatia dela erakusten dutenak."

Arrazoiak:

Puntua ongi dago baina osatu gabe. Gerra Inperialista eta indar faxistak bersortzen dira, eta Kapitalismoaren itxurazko garaipena.

Emendagilea: Manu Aranburu Agirre. Donostia (Gipuzkoa)

4. 11. orria . 16.ESALDIA.

1.1.4. Bloke inperialistak.

Proposamena:

Kendu: "fordismoa, produkzio eta industri aparailua eraldatzen duen toyotismoaz aldatu da.

Zergaitiak:

Baiaztapen hau ulergarri izateko, kapitalismoaren krisi ekonomikoarekn enpresetako eraketen aldaketari buruz azalpen zabalago bat beharko litzake

Emendagilea: Jose Alcedo Gil. Bilbo (Bizkaia)

5. 11 orria. 17.ESALDIA.

1.1.4. Bloke inperialistak.

Proposamena:

"Gehiegizko ekoizpena dela eta kapitalismoaren krisi fase bat bizi dugu, zeinak Hirugarren Munduan eta Europako Ekialdean merkatu berriak bilatzera bultzatzen dute, hauek berriro ere Mendebaldeko koloniak bihurtzen ari direlarik. Potentzia kapitalista ezberdinak, beraen artan lehian dabilta, influentzia eta neokolonialismo esparruak lortzear" gehitu.

Zergaitiak:

Ez dago ongi adierazia, oinarria superproduktzioa da.

Emendagilea: Manu Aranburu Agirre. Donostia (Gipuzkoa).

6. 11. orria . 20 ESALDIA.

1.1.5. EEBBak eta hegemonis mundiala.

Proposamena:

Erantsi puntuaren ondoren: "Merkatu berriak lortzeko Japonia eta Europaren aurretik Alemania eta EEBBen arteko inperialisten arteko borroka nabarmena da. Balkanetan hegemonia alemaniaren betiko aliatua, Kroaziak eskuin muturreko erregimena onartzean Alemaniak, EEBB, Frantzia eta Ingalaterraren hegemoniari erronka egin zien. Europako ekialdean indar neokolonial bezala bere etsai enperialistei gailentzen zaie Alemania."

Zergaitiak:

Ponentziak gaizki adierazten du.

Emendagilea: Manu Aranburu Agirre. Donostia (Gipuzkoa).

7. 12. orria . 23. ESALDIA.

1.1.6. Nazioarteko instituzioak.

Proposamena:

Lehenengo lerroan, "Nazioarteko Moneta Fondoa" ondoren "eta komertziorako erakunde mundiala" gehitu.

Zergaitiak:

Bigarren enmendakinaren berdinak.

Emendagilea: Enrike Galarza Prieto. Iruñea (Nafarroa).

8. 12. orria . 29. ESALDIA.

1.1.7. Estatuaren betekizuna.

Proposamena:

Esaldiari puntu berria gehitu: "Batuetan, kanpoko enpresen konpetentziaz ezabatuak izango liratekeen kapital zatiak indartzeko, Estatuak mundu mailako kapitalen interesen galeran, beren "barneko" kapitalisten interesen alde jokatzeari da gaurko Estatuaren ustelkeriaren iturri haundienetako bat. Beren merkatu zatiari eusteko, alderdi politiko eta Administrazioaren gizon haundiak erostea, zenbait enpresa haundien joera, eguneroko gauza da."

Zergaitiak:

Atal hau orohar zuzena iruditzen zait; baina gauza bat ahazten da: ustelkeria. Estatuak jokatzen duten interesen joku bikoitz horren ondorioa.

Emendagilea: Jose Ramón Goikoetxea "Ardotxi". Hernani (Gipuzkoa).

9. 12. orria . 29. ESALDIA.

1.1.7. Estatuaren betekizuna.

Proposamena:

Laugarren lerroan, "itxura faxistaz" ondoren "nazionalismo-chauvinistaz, arrazismoaz eta xenofobiaz" gehitu.

Zergaitiak:

Osatugabea da, beharrezkoa da esandakoa gehitzea.

Proposatzailea: Manu Aranburu Agirre. Donostia (Gipuzkoa).

10. 13. orria . 30. ESALDIA.

1.1.10 Ongizatearen Estatuaren kontrako erasoa.

Proposamena:

Atalaren hasieran erantsi: "Gizaldi bateko langile eta herri industrializatueta produktibitatearen gehitze ikuskarri eta metropoliei kolonietako explotazioaren alderdien ondorioa da Ongizatearen Estatua. Baina, batez ere, Munduko II Gerratearen ondoren, komunismoak ez kutsatzeko txerturik onena zela pentsatuaz, Ongizatearen Estatua eraikitzen dute erregimen kapitalistak. Honegaitik, kapitalismoaren historian keynesianismoa salbespen bat dela esan daiteke eta kapitalismoaren merkatutik kanpo garatzeko ahalmenak azaldu zituzten herri klaseek politikara egin zuten sarrera gabe ezin da explikatua."

Zergatiak:

Ongizatearen Estatua zerutik datorrela dirudi. Ez da historian kokatzen, ez eta Munduko II Gera ondoren, bere eredu gile erabakiorrak aipatzen.

Emendagilea: Jose Ramon Goikoetxea "Ardotxi". Hernani (Gipuzkoa).

11.15 orria. 45.ESALDIA.

1.2.Euskal eraikuntza nazionala eta nazioarteko harremanak.

Proposamena:

"BM eta NMFaren desmantelamendu osoa exigitzen dugu eta herrien eta herri instituzioen nazioarteko bilera berri batean, langile eta herri subiranoen artean nazioarteko kooperazio berri baten interesen alde egingo dituzten erakunde berriak eraiki" 5. gidoiaz aldatu.

Zergatiak:

45. puntuan: "Banku Mundialaren eta NMFaren estrategia errotik aldatzea exigitzen dugu: horien egitura, helburuak eta jarduketak NBEaren eta erakunde hau osatzen duten Herrien kontrolpean gera daitezen" exigitzen da. Kapitalismoaren oinarriko instituzio bezala 1944an hasita, urte hauetan zehar egin duen zorigaiztokoarena eta bere izaera, gixaixoarena da eraldatzea eskatzea; abolitu egin behar dira.

Proposagilea: Jose Ramon Goikoetxea "Ardotxi". Hernani (Gipuzkoa).

12. 17. orria. 57.ESALDIA.

1.3.1 Maastricheko ituna.

Proposamena:

"Estatuak osatzen..." jartzen duen lekuan, jarri: "Estatuak osatzen dituzten Herrien eta Estaturik gabeko nazioen errealitatea..."

Zergatiak:

Badira Herriak Estatu bat osatzen dutenak eta Estatu guziak ez dira plurinazionalak.

Emendagilea: Joseba Gonzalez Pereda. Bilbo (Bizkaia).

13. 17. orria. 58. ESALDIA.

1.3.1. Maastricheko ituna.

Proposamena:

"Europaren...1992urtea..." jartzen duen lekuan, jarri:

"Europaren Eraikuntza...1992 urtea izan da elkar teak bizi izan duen krisialdirik..."

Zergaitiak:

Esan nahi dena ez da garbi azaltzen.

Emendagilea: Joseba Gonzalez Pereda. . Bilbo (Bizkaia).

14. 17. orria. 59. ESALDIA.

1.3.1. Maastrichteko ituna.

Proposamena:

Ponentziaren textoa aldatu: "Hiritarren behar zuzenetatik urrun dagoen proiektuak eta gero eta langabezia, pobrezia eta giza-marginalitate gehiagoren aurrean, Estatu frantseseko langileek eman duten erantzuna, kapital trasnazionalak ezarri nahi duen eredu bidera ezina egiteko Europa osoan jarraitzeko adibidea da."

Zergaitiak:

59. puntuan "eredua bideraezinezkoa dela...Europako herrialdeetako barne-erresistentzia" gaitik oso triunfalistak uste dut. Estatu Frantziarreko kasu berria eta Dinamarkako erreferendumaren ondorioak salbu, Maastricht proiektuari erantzun haundirik ez zaiola eman uste dut, oraindino. Gaurregun, nahia gehago dela uste du, errealitatea baino.

Emendagilea: Jose Ramon Goikoetxea "Ardotxi". Hernani (Gipuzkoa).

15. 18 orria. 61. ESALDIA.

1.3.2. Europar Ekialdeko Herrialdeak.

Proposamena:

Esaldi hau: "eta aurreko urteetan jasandako barne-migrazioengatik" datorrenagatik aldatu: "SESB garaiko burokrazia estalinismoaren politika inperialistaren ondorioengatik."

Zergaitiak:

Antzinako SESBeko herriladeentzako estalinista burokraziaren ondorenak hain makurrak izan zirenean, "migrazio ondorenak" esatea, eufemismo desegoki bat da gutxienez.

Emendagilea: Jose Ramon Goikoetxea "Ardotxi". Hernani (Gipuzkoa).

16. 10 orria. 70. ESALDIA.

1.3.3. Europako Sozialdemokrazia.

Proposamena:

Esaldi honetan datorrena kendu: "Ipar Europako herrialdeek ala Hegoaldekoek praktikan jarritako sozialdemokraziak gauza bera ez diren arren, sozialdemokraziak orohar porrot egin du Europa eraikitzeko alternatiba sozial gisa".

Zergaitiak:

Multinazionaleen europar eraikuntzarako sozialdemokraziatik inoiz ez da giza-alternatibarik planteatu, DE-LLORS "Liburu zuria" planteatzen ez bada.

Emendagilea: Jose Alcedo Gil. Bilbo (Bizkaia)

17.20 orria. 80. ESALDIA.

1.3.4. Europako Herriak berpiztuko ote?

Proposamena:

Esaldi hau ezabatu.

Zergaitiak:

Agertutakoa burgesia eta sozildemokraziaren ikuspuntua da.

Emendagilea: Manu Aranburu Agirre. Donostia (Gipuzkoa).

18. 20 orria. 81. ESALDIA.

1.3.4. Europako Herriak berpiztuko ote?

Proposamena:

"Jugoslavia -ohia" hitza kendu eta "Errusia" "Errusiar Federazioaz" aldatu.

Zergaitiak:

Planteatutakoak izen zuzenagoak dira.

Emendagileak: Manu Aranburu Agirre.. Donostia (Gipuzkoa).

19. 20 orria. 84. ESALDIA.

1.3.5. Europaren eraikuntza eta ekinbide sindikala.

Proposamena:

"...Badaude (batez ere) estatu-mailako jarduera duten sindikatuak..." ordez, jarri: "Badaude, bere estatuko marko geografiko jarduera duten sindikatuak..."

Zergaitiak:

Idazkera horrez, Estatuaren aparatuekin loturiko Sindikatuetaz ari ote garan edo ulertzer a eraman gaitzakke eta hau ez da kasua.

Emendagilea: Joseba Gonzalez Pereda. Bilbo (Bizkaia).

20. 21 orria. 86. ESALDIA.

1.3.5. Europaren eraikuntza eta ekinbide sindikala.

Proposamena:

"Horretarako, Europaren eraikuntza interesik..." ordez, jarri: "Horretarako, Europaren eraikuntza berri baten interesik..."

Zergaitiak:

Argi gera behar luke, Europako proiektu berria axola zaien errealitate sindikal eta herri guzietako ordezkari-tza sindikalak behar lukete egon CES=ESK barnean. LAB bezela, gu bi aldeetatik jotzen gaitu.

Emendagilea: Joseba Gonzalez Pereda Bilbo (Bizkaia)

21. 22 orria. 96. ESALDIA.

1.4. Europa eraikitzeke eredu berri bat.

Proposamena:

"modernitatea eta elkartasuna" ordez "tradizio sozialista hobea" jarri.
"giza"ren ordez "langile eta herrien artean" jarri.

Zergaitiak:

Definizio hauek ilun eta inkerklasistak dira. "Giza eredu berria" Europa Antikapitalista batean bakarrik izango da posible.

Emendagilea: Jose Ramon Goikoetxea "Ardotxi". Hernani (Gipuzkoa).

22. 23 orria. 101 ESALDIA.

1.4. Europa eraikitzeke eredu berri bat.

Proposamena:

"Eskubide sozialen hedapena" aldatu eta jarri: "Langileen emantzipazioa ahalbideratuko dutenak".

Zergaitiak:

Ponentziaren ideiekin koherenteki, proiektu eraikigarria "demokrazia aurreratu" antzeko baten barruan kokatzen du, baina "demokrazia burges" baten forma eta ereduari lotua.

Emendagilea: Jose Ramon Goikoetxea "Ardotxi", Hernani (Gipuzkoa).

23. 23 orria. 102. ESALDIA.

1.4. Europa eraikitzeke eredu berri bat.

Proposamena:

Esaldi guztia ezabatu.

Zergaitiak:

Ponentziak defendaturiko ildoan, "demokrazian sakontzea" ezinezkoa da, ondorioz, ez dago berriro esan beharrik (aldatuta ere).

Emendagilea: Jose Ramon Goikoetxea "Ardotxi". Hernani (Gipuzkoa).

24. 24 orria. Lehen Ebazpena ESALDIA.

EBAZPENAK

Proposamena:

"indarrean dagoen eredu"..." (hasi eta bukaeraraino ordez jarri) "indarrean dagoen proiektu eta herriek su-birotasuna eta langileen askatasuna munduan segurtatzeko demokrazia politikoa eta ekonomikoaren eredu berri baten zabaltzea".

Zergaitiak:

Proposatutakoa zehatzago da.

Emendagilea: Jose Ramon Goikoetxea "Ardotxi". Hernani (Gipuzkoa)

25. 24 orria. 2. ebazpena 2. atala.

EBAZPENAK

Proposamena:

"dei egiten diogu Sindikatuaren Zuzendaritzari" aldatu "Sindikatu, beste erakundeekin komprometitzen da".

Zergaitiak:

Textua afiliazioarentzat ulergarriagoa izan dadin.

Emendagilea: Jaime Pastor Sanz.. Hego-Urrib Arratia (Bizkaia)

26. 27 orria. 1. ESALDIA.

2.1. Estatu-eredua krisiak jota.

Proposamena:

Esalditik "gune askotan" ezabatu.

Zergaitiak:

Gaurko Estatuko makinaria aurreko erregimenean bezelaxe zeraguzietan sartuta dagoelako.

Emendagilea: Felix Ruiz. . Errioxa Arabarra (Araba)

27. 27 orria. 7. ESALDIA.

2.1. Estatu eredua krisiak jota.

Proposamena:

"Demokratiko" ren ordezt "Demokrazia erreal baterantz zergaitiak.

Zergaitiak:

Textu hau agrgiago dago, Estatu Espainolean ez gaitago demokraziarik.

Emendagilea: Joseba Gonzalez Pereda. Bilbo (Bizkaia)

28.31 orria. 31. ESALDIA

2.3. Sindicalismoa Estatu espainolean.

Proposamena:

Azken puntua kendu, koma bat jarri eta erantsi: "eta gero eta gehiago euskal langileria zatituaz, zatiketa honen errua sindikal gintza abertzaleari bota nahian, ondorenak jasotzen dituztenei hain zuzen ere beren erantzunkizuna emanaz."

Zergaitiak:

Espiniar sindikatu nazionalista eta inperialistak erortzen diren erantzunkizunetan, argiago utz beharko geni-

tuzkela.

Emendagilea: Joseba Gonzalez Pereda. Bilbo (Bizkaia).

29. 31 orria. Lehengo EBAZPENA.

EBAZPENAK.

Proposamena:

Lehen ebazpeneko 2en lerroa honela jarri:

"...geldirik gaude: estatu-eredua krisi gogorrek jota eta demokrazia defizit handi batekin. Demokrazia ber-pizten..."

Emendagilea: Joseba Gonzalez Pereda. Bilbo (Bizkaia).

30. 31 orria. Lehengo EBAZPENA.

EBAZPENAK.

Proposamena:

"Krisiak kontsentsu...emago ziolarik" eraino aldatu datorrenagaitik: "berarekin konstituzio aldaketa bat eramango duen akordio batean oinarritu behar du"

Zergatiak:

Era askotara uler daiteke edo transizioa demokratiko bezala uler daiteke.

Emendagilea: Joxean Urkiola.. Donostia (Gipuzkoa)

31. 31 orria. Lehengo EBAZPENA.

EBAZPENAK.

Proposamena:

"...porrot egin du eta, ondorioz, geldirik gaude:" aldatu datorrenagaitik: "...ez du porrot egin, nahiz eta bere egonkortasuna zalantzan jartzen duen krisiak jota egon. Honegatik, demokraziarako baigarren transizio bide bat hasiaz, beharrezkoa da konstituzio kontsentsu berri bat."

Zergatiak:

Alde honen analisia aldatu egin behar da:

Emendagilea: Ana Fernandez eta Agustin Egaña. . Bilbo (Bizkaia)

32. 31 orria. Lehengo EBAZPENA.

EBAZPENAK.

Proposamena:

Lehen lerroan "...porrot egin du" ondoren "Euskal Herrian" jarri.

Zergatiak:

Porrota Euskal Herrian bakarrik jo bait daiteke. Estatu espainolean ostera, ezkerreko eta abertzale erreferentzia faltan, erret erregimenaren legitimitatea haundia da.

Emendagilea: Jose Ramon Goikoetxea "Ardotxi". Hernani (Gipuzkoa)

33. 31 orri. Lehengo EBAZPENA, Lehenengo zatia.

EBAZPENAK.

Proposamena:

Azkenaurreko lerroan "kontsentsu"ren ordez "aldaketa" jarri.

Zergatiak:

Zuzenago da hitz hau.

Porposagilea: Bernardo Gomez Edesa. Hego-Urbe Arratia (Bizkaia)

34. 31 orria. Lehengo EBAZPENA, Bigarren zatia.

EBAZPENAK.

Proposamena:

"...funtsezko ardatzak..." ondoren, erantsi "bai eta ere giza-justizia eta ondasun banaketaren borroka".

Zergatiak:

Ez da zuzena Estatuko Herrien subirotasunean bakarrik demokrazia mugatzea, gizarte zuzenago, berdin eta solidariago bat lortzea beharrezkoa da.

Emendagilea: Jaime Pastor Sanz . Hego-Urbe Arratia (Bizkaia)

35. 31 orria. Bigarren EBAZPENA.

EBAZPENAK.

Proposamena:

"neozentralista"ren ordez "espainiar nazionalista" jarri. 3en lerroan "estrategiaren aurrean LABek..." ondoren: "Estatu espainolak zapaldutako..." jarri.

Zergatiak:

Enmiendak argiago jartzen du.

Emendagilea: Joseba Gonzalez Pereda. Bilbo (Bizkaia)

36. 31 orria. Bigarren EBAZPENA.

EBAZPENAK.

Proposamena:

"...Herrien..." hitza kendu eta "...sindikalismo nazionalista..." ondoren "aurrerakoi" jarri.

"...nazionalista progresista" ondoren erantsi: "eta Estatuko beste giza-erakunde eta sindikalegin".

Zergatiak:

Estatu mailako beste sindikatuekin koordinazio iraunkorra ez da sindikatu nazionalistetara mugatu behar, bai zik lan-harremanen deszentralizazioaren alde jotzen duten estatil aurrerakoi izaera duten beste sindikatuei.

Porposagilea: Bernardo Gomez Edesa. . Hego-Urbe Arratia (Bizkaia)

37. 31 orria. Bigarren EBAZPENA.

EBAZPENAK.

Proposamena:

"...estatejiaren aurrean..." ondoren erantsi: "Langileraik jasaten dituen erasoen aurrean inoperantziaren aurrean bezala".

"..." ondoren erantsi: "gure plurinazionalismoa onartzen duten estatuko gainontzeko erakunde sindikal progresista eta klasekoekin gure harremanak sakondu".

Azken puntuaren ondoren erantsi: "eraso neoliberalaren aurrean bere jarrera epel eta objektiboki kolaboratzaile bezala".

Zergatiak:

Estatuko gainontzeko erakunde sindikal zintzo eta koherenteekiko gure posizionamendua falta da.

Emendagileak: Autoridad Portuaria del Puerto de Pasajeseko Sail Sindikala. Oarso-Bidasoa (Gipuzkoa)

38. 37 orria. 5.ESALDIA.

3.1.1 Egituraren giltzarriak.

Proposamena:

"Estatuaren jarrerak...(hasi)...estrategia horrek"raino kendu eta datorrena erantsi:

"Era berean, ENAM en egungo estategia, indar abertzaleen arteko antolamendu eta elkar ulertzea galarazten du ari da"

Zergatiak:

Emendagilea: Eraiki (14 afiliatu) Goierri-Behea (Gipuzkoa)

39. 38 orria. 8. ESALDIA.

3.1.1. Egituraren giltzarriak.

Proposamena:

Azken esaldiaren ondoren erantsi: "ENAM eta Estatuaren gaurko entrentamentu estategiak biztanleria zibila mehatxatu eta jo du zuzenean lehen aldiz historian, gatazka euskal gizarte osora zabaltzea saihestu duen traiek-toria historikoari buruz ezezko auzi kualitatiboa eginda. Estrategia hau Euskadi-Estatu enfrentamendu sarea estutzen ari da eta gatazkaren zabalera zibila gero eta indar gehiagoz zabaltzen."

Zergatiak:

Emendagilea: Eraiki (14 afiliatu) Goierri-Behea (Gipuzkoa)

40. 38 orria. 9.ESALDIA.

3.1.1. Egituraren giltzarriak.

Proposamena:

Paragrafoaren ordez ezarri hau: " Komunikazioa betidanik Ezker Abertzalearen kontrako funtsezko armatzat erabili izan da. Estatuak eta komunikabideetan eginkizun hau betetzen dutenek, Ezker Abertzalearen estrategia kriminalizatzeko saioka ari dira. Horretarako, askotan gizarte osoari informazioa bihurritu edo bahitu egi- ten diote. Errealitatea bestelokotu nahi dute bere interesen arabera abertzaletasunaren estrategia baldintza- pean jarri eta, era berean, belaualdi berriei memoria historikoa eta erreferentziak aldatzeko."

Zergatiak:

Idazkera osoagoa da.

Emendagilea: Joxean Urkiola. Donostia (Gipuzkoa).

41. 38 orria. 10 ESALDIA.

3.1.1. Egituraren giltzarriak.

Proposamena:

10aren atzetik beste paragrafo erantsi: "Hitz batez, koiuntura politikoaren botere sozialistaren nola halako ahit- ze politikoa da ezaugarrietako bat da. Eskandaluak, ustelkeria, baliogabetasun ekonomikoa, honen guztiaren agerpena, industriaren suntsiketa eta gora datorren langabezia izanik, baina horrela ere hauteskundetari dauz- katen guneak behin betikoz ez dira ondoratu egin. Batzuek nahi dutenaren beste aldera, egungo egoera poli- tikoak ez du estatu krisirik erakusten. Aitzitik ordea, botere zikloaren amaiera gobernu krisian datza. Garran- ti haundia dauka bi kontzeptu hauek bereizteak dagoeneko baitago botere politikoaren alternatiba (PP, alegia) eta makineria pronto dauka boterea hartzeko. Krisialdi sakona agertzen duena, ordea, euskal nazionalismoa- ren alorrean ENAM da: argi eta garbi soziolojikoki eta hauteskundetari galerak jasan ditu Bizkaia, Araba eta Na- farroan. Ezker Abertzalearen oinarri sozialaren murrizketak eta PPK Euskadin loritu duen label demokratikoak. Ezker Abertzaleari strategi aldatzera behartzen diote beherako joera jarraiarri buela emango badio. Labur- bilduz, nazionalismo espainolak aurrera darrai Euskadin, euskal nazionalismoak eta Ezker Abertzalea berezi- ki atzeraka ari den bitartean. Nork atera bitza ondorioak. Ezker Abertzalearen norabide estrategikoa aldatze- ko garaia dugu.

Zergatiak:

Emendagilea: Eraiki (14 afiliatu). Goierri-Behea (Gipuzkoa).

42. 39 orria. 16.ESALDIA.

3.1.2. Nazionalismo erregionalista.

Proposamena:

Esaldi osoa kentzea.

Zergatiak:

Emendagilea: Eraiki (14 afiliatu). Goierri-Behea. (Gipuzkoa)

43. 39 orria. 17-18 ESALDIAK.

3.1.2. Nazionalismo erregionalista.

Proposamena:

17 eta 18. esaldien artean beste bat txertatzea: "Botere politiko eta autonomi kota txiki txikiak eskuratu ondoren, Euskal Herriko enpresa eta ekonomi sektore adierazgarrienen ordezkari politiko den aldetik, PNVren buruan dabilen agintari gogorren taldeak, gaur gaurkoz, erosotasun maila dotore batera iritxi da eta, keinu erretrikoetatik haratago, autonomien estatuaren egungo marko konstituzionalak auzitan jar lezaketen bide berririk jorratzea ez du nahi".

Zergaitiak:

PNVren balorazio aski subjeliboa egiten da. Euskal sektore ekonomikoekin dauzkan loturak eta konibentzia baldintzatzen dituenak ez dira sartu azterketan.

Emendagilea: Jose Ramon Goikoetxea "Ardotxi". Hernani (Gipuzkoa)

44. 39 orria. 18.ESALDIA.

3.1.2. Nazionalismo erregionalista.

Proposamena:

Kendu: "Ertzaintza izan daiteke.....botere faktikoa".

Zergaitiak:

Ertzaintza ezin har daiteke PNVren beso armatutzat, Goardia Zibil eta Estatu españolaren kasuan ez bezala, eta Estatu españoleko polizia deszentralizatu gixa baizik (halakotzat, estatuaren zapalkuntza lanak bete behar ditu). Definizio honen bitartez, honelako poliziaren baldintzatzaileak PNVren duten eraginak ez dira justifikatzen; Estatu españolaren interesetara PNVren politika orokorraren murrizketarekin bestela gertatzen baita.

Eusko Jaurlaritza=Estatu delako simplekeriasko ikuspegia ez izatekotan,

Emendagilea: Jose Alcedo Gil..Bilbo(Bizkaia).

45. 39 orria. 18.ESALDIA.

3.1.2. Nazionalismo erregionalista.

Proposamena:

Esaldi guztia kendu eta horren ordez hau jarri: "Nahi ta nahi ez Ertzaintza da Euskal Herriaren gehiengoak sostengaturiko euskal polizia. Instituzio honen kontrako eraso armatua, berriro ere, euskaldunen arteko enfrontamendu zibila sortarazteko eta independentziatzko proiektuaren interbindea eragozten duen ekintza da".

Zergaitiak:

Emendagilea: Eraiki (14 afiliatu). Goierrri-Behea (Gipuzkoa).

46. 40 orria. 23.ESALDIA.

3.1.2. Ezker Abertzalea.

Proposamena:

23. esaldiaren ondoren hurrengo erantsi:

"Ezker Abertzale kontzeptuaren ordez, ENAM jarri behar da indarrean. Textuinguru honetan ENAM kontzep-

tua erabiltzea zuzenagoa da, egungo errealitateari hertsikiago dagokiolako, gune hau gizarte osoaren anabasa baita, ezkerreko jarrerekin zerikusi eskasa duten sektore eta jokaerak barne."

Zergaitiak:

Emendagilea: Eraiki (14 afiliatu). Goierrri-Behea (Gipuzkoa).

47. 40 orria. ESALDI BERRIA

3.1.3. Ezker Abertzalea.

Proposamena:

23. esaldiaren ondoren hurrengoa erantsi:

"Aitzitik Ezker Abertzale kontzeptuak justizia eta elkartasun haundiagoko eredu baten aldeko aldakuntza soziopolitikoak adierazten du, eta gizarte horrekin hobeto identifikatzen dugu gure burua."

Zergaitiak:

Emendagilea: Eraiki (14 afiliatu). Goierrri-Behea (Gipuzkoa).

48. 40 orria. ESALDI BERRIA

3.1.2. Ezker Abertzalea.

Proposamena:

23. esaldiaren ondoren hurrengoa erantsi:

"ENAMek sakonki kritikatu behar du bere burua eta bestelako estratejia bati heldu behar dio, euskal gizartearen sektore zabalagokoekin konektatzeko gauza ez baita honela."

Zergaitiak:

Emendagilea: Eraiki (14 afiliatu). Goierrri-Behea (Gipuzkoa).

49. 40 orria. ESALDI BERRIA.

3.1.3. Ezker Abertzalea.

Proposamena:

23. esaldiaren ondoren hurrengoa erantsi:

"ENAMen proiektu politikoak gero eta sostengu politiko urriago dauka; honen ondorioz euskal gizartean gero eta gutxiengo nabarmenagoa izango da."

Zergaitiak:

Emendagilea: Eraiki (14 afiliatu). Goierrri-Behea (Gipuzkoa).

50. 40 orria. ESALDI BERRIA.

3.1.3. Ezker Abertzalea.

Proposamena:

23. esaldiaren ondoren hurrengo erantsi:

"Era berean ENAM bidegurutze historikoan dago. Bere espektru politikoa zabaldu eta gainontzeko indar abertzaleekin aliantzak ezartzearen bitartez indar sozialen bilketa eginez, Euskal Herrian daukan agerpen soziala areagotu ala gero eta haundiagoak diren minorizazio isolamenduaren erroagatik zeinahi proiektu independentzialaren irteera eragotzita geratuko da."

Zergatiak:

Emendagileak: Eraiki (14 afiliatu) Goierri-Behea (Gipuzkoa)

51. 40 orria. 26.ESALDIA.

3.1.3 Ezker Abertzaleak.

Proposamena:

Esaldiaren orde z jarri hau: "Euskal Herriko gero eta sektore zabalagoak erakartzeko ENAMek erakutsi duen ezgaitasunak bere etorkizuna behin betirako galbidean usten du".

Zergaitiak:

Emendagileak: Eraiki (14 afiliatu) Goierri-Behea (Gipuzkoa)

52. 40 orria. 26.ESALDIA.

3.1.3. Ezker Abertzalea.

Proposamena:

Kendu "Ezker Abertzalearen jarrera..." horretatik esaldiaren bukaeraraino. Horren orde z jarri "Agerpen politiko sozialengatik galtzen du bere ideaiak gizarte sektoreengan sakontasun haundiagoz sartzeari ez duelako lortzen, eta horrela baliteke ENAM ghetto bihurtzea."

Zergaitiak:

Aztertu beharra dago, era berean, gure ideia eta jarrerak gero eta onarpen sozial urriago dutela, gure kontrako inguru gero eta oldarkorragoan.

Emendagilea: Ana Fernandez eta Agustin Egaña. Bilbo (Bizkaia).

53. 40 orria. 26.ESALDIA.

3.1.3. Ezker Abertzalea.

Proposamena:

Kendu: "birbalorizatu eta perspektiba estratejiko nabarmenez".

Zergaitiak:

Txostenaren testua triunfalistegia da eta ez du zehazki argitzen zein garaitan dagoen Ezker Abertzalea.

Emendagilea: Jose Ramon Gutierrez "Ardotxi". Hernani (Gipuzkoa).

54. 40 orria. 27 ESALDIA.

3.1.3. Ezker Abertzalea.

Proposamena:

Kendu: "Ezker Abertzalearen suspertze politiko honen aurrean".

Zergatiak:

Alferrikako harrokeria huts bat da.

Emendagilea: BBKko Atal Sindikala Bilbo (Bizkaia).

55. 41 orria. 27.ESALDIA.

3.1.3. Ezker Abertzalea.

Proposamena:

Esaldi osoa kentzea.

Zergatiak:*Propogilea: Eraiki(14 afiliatu). Goierri-Behera (Gipuzkoa).*

56.41 orria. 27.ESALDIA.

1.3.1. Ezker Abertzalea.

Proposamena.

Esaldi osoa kentzea.

Zergatiak:

Aztertu beharra dago, era berean, gure ideia eta jarrerak gero eta onarpen sozial urriago dutela, gure kontrako inguru gero eta oldarkorragoan.

Emendagileak: Ana Fernandez eta Agustin Egaña. Bilbo(Bizkaia)

57.41 orria. 29.ESALDIA.

1.3.1. Ezker Abertzalea.

Proposamena.

Esaldi osoa kentzea.

Zergatiak:

Aurrekoak berak.

Emendagileak: Ana Fernandez eta Agustin Egaña. Bilbo(Bizkaia)

58. 41 orria. 29.ESALDIA.

3.1.3. Ezker Abertzalea.

Proposamena:

29.aren ondoren beste esaldi hau erantsi: "Tenkadura soziala ez da kokatu behar interbinde orokorren (auto-determinazioa...) eta zapalkuntza alorrean bakarrik. Lan hauek biziki inportanteak izanik ere aztinketa (eguneroko jarduera politiko sozialaren elementua den aldetik) sektore sozialik zigortu eta zapalduenak eskatzen dituzten erreibindikazioen alorretara eraman behar dira. Biztanleriaren premia nazional eta sozialekin ertxiki lotutako klontrabotere sozial eta politikoa sortzea gu Ezker Abertzaleak erronka betegabea.

Zergatiak:

Txostenaren azterketa hobeki kokatzen du.

Emendagilea: Jose Ramon Goikoetxea.. Hernani (Gipuzkoa).

59. 41 orria. 29.ESALDIA.

3.1.3. Ezker Abertzalea.

Proposamena:

Esaldiaren bukaeran erantsi hau: "Eta ez, noski, euskal langileriaren ondasuna kale mailako aztinketen bitartez suntsituta".

Zergatiak:

Emendagileak: Eraiki(14 afiliatu). Goierrri-Behea(Gipuzkoa).

60. 42 orria. 38 ESALDIA.

3.1.3. Ezker Abertzalea.

Proposamena:

Kendu "prozesu honek....sujetu bakarrak" esaldia.

Zergatiak:

Egungo strategiaren arabera izaera positibo eta intergratzailea eman nahi izatea kontraesanezkoa delako.

Emendagileak: Anan Fernandez eta Agustin Egaña. . Bilbo(Bizkaia)

61. 43 orria. 38.ESALDIA.

3.1.5 LABen ekinbide soziopolitikorako ondorioak.

Proposamena:

Esaldi guztia (bi atalak) kentzea eta hau jarri: "Borroka armatuak ondorio politiko negatiboak ematen ditu, kalteak eta izaera indiskriminatuko ondorioak eraginez: hauek Euskal Herriaren kontzientzia sozialean erreakzio negatiboa sortarazten duten arren, gora behera jakin batzuetan borroka plegu hau zilegizkoa izan daiteke. Baina gaur egun, praktika hau ez da justifikagarria.

Zergatiak:

Emendagileak: Eraiki(14 afiliatu). Goierrri-Behea(Gipuzkoa).

62. 43 orria. ESALDI BERRIA.

3.1.5. LABen ekinbide soziopolitikorako ondorioak.

Proposamena:

38. esaldiaren ondoren hau erantsi: "Ez Euskal Herriko eskubideak ez bertako langileriarenak defendatzen dira langileari kalte eta mehatxu eginez bahiketen bitartez. Honela bada, LABen jarrera, Aldintranseko langileei dagokionez, erabat erreakzionario eta langileen kontrakoa da.

Zergatiak:

Emendagileak: Eraiki (14 afiliatu). Goierrri-Behea (Gipuzkoa).

63. 43 orria. 38. ESALDIA.

3.1.5. LABen ekinbide soziopolitikorako ondorioak.

Proposamena:

Kendu "zilegitasuna".

Zergatiak:

Emendagileak: Anan Fernandez eta Agustin Egaña. Bilbo (Bizkaia)

64. 43 orria. 38. ESALDIA

3.1.5. LABen ekinbide soziopolitikorako ondorioak.

Proposamena:

Esaldiaren bigarren partea kendu eta hau jarri: "Hori gora beheran langileriak aski bereganatuak ez dituen helburuen kontrako ekintza bortitzak lagungarri ez gertatzeaz gain, LABek premiazkoa duen indar metaketa eta lortu nahi dituen helburuen erdiespena oztopatzen dute".

Zergatiak:

Inungo blokeetan sartuta ez dagoenez, LABek ez lituzke bere iritziak bestelako erakundeen menpe azaldu behar. Euskal gizartea hitzak erabiltzea gehiegizkoa da geure iritzien euskarritzat.

Emendagileak: Anan Fernandez eta Agustin Egaña. Bilbo (Bizkaia)

65. 43 orria. 38. ESALDIA.

3.1.5. LABen ekinbide soziopolitikorako ondorioak.

Proposamena:

Esaldiaren lehen puntua kendu eta jarri hau: "ETAren ekinbide biolentoa Estatu espainolaren alde aurretiko ekinbide biolentoaren erantzunezkoa da, Euskal Herriaren borondatearen kontra haren eredu politikoa ezartzeko, Euskal Herriari bere burua garatzea eragotziz erabakitzeke zor zaion gaitasunetik.

Zergatiak.

Emendagilea: BBKko Atal Sindikala. Bilbo (Bizkaia)

66. 43 orria. 38.ESALDIA.

3.1.5 LABen ekinbide soziopolitikorako ondorioak.

Proposamena:

Lehenengo esaldiaren orde zatorrena jarri:

Eukal Herriari bere erabakimenean garatu eta erlazionatzea eragotziaz, Estatuak, Euskal Herriaren borondatearen aurka, bere eredu politikoa ezartzeko egiten duen ekinbide biolentoaren erantzuna da ETAREN ekinbide biolentoa.

2en esaldian "LABek ETArn..." hasi eta bukaeraraino aldatu datorrenagatik: "Zapalkuntza hutsa medio, Estatu espainolaren eskubide demokratikoen ukazioari erantzun bat bezala kokatzen duelako ez du salatzen LABek ETAREN borroka armatua.

Zergatiak:

Gauza nabarmena da, ETAREN jarduera erantzuna dela. Bicezkotasuna aipatzea soberan dago.

Ez hontaz eta ez hartaz, LABek "inoiz ez duela egingo" esatea ez da zuzena. LABek gorean egingo duena, orduan erabakiko dute bere militanteeek.

ETAREN erantzuna, erantzun politiko "bat" da, ez da" erantzun politikoa."

Emendagilea: BBKko Atal Sindikala. Bilbo(Bizkaia)

67.43 orria. 38.ESALDIA.

3.1.5 LABen ekinbide soziopolitikorako ondorioak.

Proposamena:

Kendu "Euskadin borroka armatuak..." bukaeraraino.

Zergatiak:

Aurreko esaldian kokatu dira ETA izateko arrazoiak eta, era berean, enfrontamendu armatuen itzalketari nola ekingo zaion.

Adierazi beharrik ez dago ETAK eredu politikorik ezarri nahi ez duenik, honakoa lilurazkoa litzatekelako Euskal Herria borroka armatuaren kontra dagoelako.

Borroka armatua publikoki salatzeari historikoki uko egin izatea, ezagutzen dugun zilegitasunaren barnean kokatzen da, eta oraingoan, arrazoi alferrik errepikatzea da edo LABen ekinbide soziopolitikoaren kontrakoak lirudiketen ETAREN balizko ekintzen aurreko aurreiazko baldintzatzaile dogmatikoa litzateke bestela: honela izatekotan, Sindikatuaren etorkizuneko zuzendaritzak koiuntura honentantxe aztertu beharko litzuzke.

Emendagilea: Jose Alcedo Gil Bilbo(Bizkaia)

68. 43 orria. 39.ESALDIA.

3.1.5 LABen ekinbide soziopolitikorako ondorioak.

Proposamena:

Kendu "beharko litzuzke" eta jarri "beharko ditu".

Zergatiak:

Forma hau zuzenago da.

Emendagilea: Joseba Gonzalez Pereda Bilbo(Bizkaia)

69.44 orria. 42.ESALDIA

3.2. Euskal Herriko egoera sozioekonomikoa.

Proposamena:

Kendu "Euskal ekonomia" eta jarri "Hego Euskal Herriko ekonomia".

Zergatiak:

Ez da euskal ekonomia, Hego Euskal Herriko ekonomia baizik.

Emendagilea: Joseba Gonzalez Pereda. Bilbo(Bizkaia)

70. 44 orria. 44.ESALDIA

3.2. Euskal Herriko egoera sozioekonomikoa.

Proposamena:

Esaldia kendu eta jarri: "Desantolakuntza soziala. Desantolamendu hau produkzio alorrean hasi eta, geroago, zerga-politika atzerakoiaren eta Administrazioa eta Zerbitzu Publikoak pribatizatzearen estrategiaz sakondu egiten da. Desantolakuntza soziala, gora doazen langabeziaren, lan prekarietatea zabaltzearen, industri enplegua suntsitzearen eta, berdintasun terminoetan, aberastasun banakuntza den helburu teorikotik gero eta hurrutiago dagoen fondo publikoaren gestioaren emaitza da."

Zergatiak:

Koiunturako azterketan agertu behar dute Sektore Publikoa suntsitzeko, zerbitzuak pribatizatzeko eta ditu publikoz etekin pribatuak lortzeko joerak.

Emendagilea: Lander Etxebarria Garitazelaia. Bilbo(Bizkaia)

71. 45 orria. 50.ESALDIA

3.2. Euskal Herriko egoera sozioekonomikoa.

Proposamena:

Esaldia beste hau erantsi: "Era berean, esan dezakegu elkarren osagarri diren bi faktore erabakiorrek, Euskal Herri eta Estatu espainola kinka larrian jarri dituzte. Gure ekonomia Maastrichtko itunean tamalez eta eragozpe-
nez sartu izanak, espekulaziozko ekonomia bultzatzeak eta produkziozko ekonomia bertan behera usteak egungo emaitza katastrofikoak ekarri dituzte. Ekonomiaren hazkuntza urriak enplegu prekarioa eta funtsezko aldakuntza eta obekuntzak izateko esperantzarik ematen ez duten goeraldia besterik ez du sortu. Datozen urteotan langabezi tasa garaiak jasan beharko ditugu eta, horrenbestez, hauen eraginak murrizteko, Euskal Herriko eragile sozial, politiko eta ekonomikoei formulak proposatzean bildu beharko dugu gure ekinbidea. Euskal Herriarentzat enplegu-politika tajutzean eragile aktibo izan behar dugu."

Zergatiak.

Emendagileak: Eraiki. (14 afiliatu). Goierri-Behea (Gipuzkoa)

72.46 orria. 56.ESALDIA.

3.3.1. Hego Euskal Herria.

Proposamena:

Esaldiaren hasera datorrenagaitik aldatu:

"Erakunde hau ezezik, beste batzuek ere (ESK-CUIS, CGT, CNT...) badaude; etq behin ere baino garrantzi

gehiago dauka..."

Zergatiak:

Kentzea baino gehitzea hobe. Organizazio sindikal hauentzako, esaldi hau iraingarria dela uste dugu.

Emendagilea: BBko Atal Sindikala. Bilbo(Bizkaia).

73. 46 orria. 56.ESALDIA.

3.3.1. Hego Euskal Herria.

Proposamena:

Esaldia kendu eta jarri: "Badaude bestelako aukera sindikalak, hala nola, ESK-CUIS, C.G.T., STEEL-EILAS, C.N.T... horiekin, sekula baino gehiago, premiazko dugu etengabeko erantzun orokorraren bila aritzea, euskal langilerian neoliberalismoak eta zentralismo espagnolak sartzen dituzten aldakin ideologiko eta sozioekonomikoen kontra aritzeko."

Zergatiak:

Ezker sindikalarekin batera lan egin behar da, geure burua bakartzat edo hoberentzat hartu gabe.

Emendagilea: Ana Fernandez eta Agustin Egaña. Bilbo(Bizkaia).

74. 46 orria. 60.ESALDIA.

3.3.1. Hego Euskal Herria.

Proposamena:

"Batzuetan..."etik hasita datorrenegatik aldatu: "Batzuetan, euskal langileria sindikalginta bateratzea zaildu egiten dute sindikatu hauek".

Zergatiak:

Aurrekoaren gauza berdina.

Emendagilea: Ana Fernandez eta Agustin Egaña. Bilbo(Bizkaia).

75. 46 orria. 60.ESALDIA.

3.3.1. Hego Euskal Herria.

Proposamena:

Esaldi hau erantsi: "Euskal Herrian azken urteotan izan den gertakaririk positiboarena ELA eta LABen arteko posizio estrategikoen hurbilketa izan da, autogobernamendu-maila garaiagoak eta autodeterminatzeko errei-bindikatuz, lan harremanetarako euskal markua helburu gertuenekotzat hartuta, egitate konsumatuen bidetik ezartzeko, joandako hauteskunde sindikaletan sortutako indar koerlazioan ohin harturik, pittinka pittinka CCOO eta UGT euskal instituzio sarean bete duten pribilejiozko jarrerarik hurrutiratzeko. LAB eta ELAren batasun estrategikoa bide zuzena dugu alor sozioekonomikoan autogobernamendu jarreretan aurrera egiteko."

Zergatiak:

Emendagilea: Eraiki (14 afiliatu). Goierri-Behea (Gipuzkoa)

76. 50 orria. 83.ESALDIA.

3.4.1. Alderdi orokorrak.

Proposamena:

Esaldia kentzea.

Zergatiak:

Ordezkatzen duen justifikabide ideologikoaren arabera, Nazioarteko Ordenu Berrian liberalismoaren bilakara analitikoaren egiten dugu (Euskal langileria antolatutako eman dituen erantzunen azterketan kokatua) ala testuan bezala, bonbardaketa ideologikoaren berarizko ondorioztat, euskal langileriarik ez dagoela eșan behar da, hau egia ez dela.

Lehendik bazegoen mezu baten suspertze ideologikoa ondorioztatu duen beharrezko erantzun mobilizatzaileri aurkeztutako alternatibak gutxi izatearen ondorio da, batez ere. Horri esker, langileriaren zatikatze handiagoaren sortzaile diren aldakuntza teknologikoen artean, klase konzientzia endakatu da.

LABi geratzen zaion lana, beraz, langileen arteko zatikapen hori gainditzea da eta horretan, gertaturiko aldakuntzen funtsezko karga ideologiari egozte eza da batere lagungarri.

Emendagilea: Jose Alcedo Gil. . Bilbo (Bizkaia)

77. 50 orria. 84.ESALDIA.

3.4.1. Alderdi orokorrak.

Proposamena:

Esaldia kentzea.

Zergatiak:

Aurreko enmendakinaren berberak.

Emendagilea: Jose Alcedo Gil. . Bilbo (Bizkaia)

78. 51 orria. 91. ESALDIA.

3.4.2. Hego Euskal Herria.

Proposamena:

Kendu "neurri haundi batean" eta jarri "krisialdi kapitalistak egitura ekonomiko bulneragarriaren baitan izan duen eraginagatik"

Zergatiak:

Funtsez, siderurgian et unzigintan erikitako krisialdi kapitalistaren sakona eta euskal ekonomiaren egituraren ahulezia gutxietsi egiten da.

Emendagilea: Jose Ramon Goikoetxea "Ardotxi" .. Hernani (Gipuzkoa)

79. 53 orria. 1.EBAZPENA Hego Euskal Herriko testuinguru politikoa.

EBAZPENA.

Proposamena:

Kendu "jokabide demokratikoa" eta jarri "oinarrizko arau demokratikoak".

Zergatiak:

Hitz hau, literatura politikoan burgesiaren ideologoen sartutako hizkerari dagokio eta klaseka zatikatutako gizartearen jardura dautzan sakoneko desberdintasuna ezkututzen dizkigu. Gizar tea aldatu nahi dugunok bestelako kultura eraiki behra dugu.

Emendagilea: Jose Ramon Goikoetxea "Ardotxi". Hernani (Gipuzkoa)

80. 54 orria.1.EBAZPENA Textuinguru sindikala.

EBAZPENA.

Proposamena:

Kendu "ELArekinduten neurrian" eta jarri "bestelako erakunde sindikalekin, harreman hauek Euskal Nazioaren Eraikuntzaren testuinguruan, aldakuntza politiko sozialaren helburua lortzea ahalbideratuko duten neurrian."

Zergatiak:

Kontua da, guk bezalako interesak eta helburuak dituzten sindikatuetatik edozeinekin batasuna lortzea, inore baztertu gabe.

Emendagileak: Ana Fernandez eta Agustin Egaña.. Bilbo (Bizkaia)

81 54 orria.3.EBAZPENA Testuinguru sindikala.

EBAZPENA.

Proposamena:

Ebazpena kentzea.

Zergatiak:

Gure ustez LAUGARREN EBAZPENEAN Euskadin dauden ezker sindikaleko beste sektoreei buruz (CCOOen Izquierda Sindical izenekoa barne) LABek daukan jarrera zehatz mehatz adierazten da.

Gure jarrera horiekiko, adibidez, ESK-CUI Sekikoa berbera izan behar du, hau da, eraikuntza nazionaleko proiektuan egoera errotik aldatzea lortu nahi duen ekinbide sindikal eta soziopolitikoko proiektu bakarrean parte har dezaten konbit egitea.

Egungo ildotik jarraitu behar dugu CCOOen espagnolismoa nabarmenduz, bertako militanteek bere burua minimoki abertzaletzat eta ezkertartzat hartuta erakunde hori utzi eta gure proiektuan sartu arte.

Emendagilea: S.S. Autoridad Portuaria de Pasaia. Oarso-Bidasoa (Gipuzkoa)

82. 54 orria.3.EBAZPENA Testuinguru sindikala.

EBAZPENA.

Proposamena:

Ebazpena kentzea.

Zergatiak:

Daukan baino garrantzi haundiagorik ez diegu eman behar CCOOei.

Emendagilea: Jose Miguel Martin Dominguez. Gasteiz (Araba)

83. 54 orria.3.EBAZPENA Testuinguru sindikala.

EBAZPENA.

Proposamena:

CCOOei buruzko aipamena kentzea.

Zergatiak:

CCOOen azken jarduerak argi eta garbi utzi dute beren orriango jarrera. Beraz, sindikatu horri buruzko berarizko aipamenik egin gabe esandako konpromezuak bereganatzen dituzten guztiei ateak zabalik utzita, aski da denentzat.

Emendagilea: Joxean Urkiola.. Gipuzkoa.

84. 54 orria.3.EBAZPENA Testuinguru sindikala.

EBAZPENA.

Proposamena:

Ebazpena kentzea.

Zergatiak:

Kontua da gure interes eta helburuekin bat datozen sindikatuetatik edozeinekin bateginik aritzea inor baztertu gabe.

Emendagileak: Ana Fernandez eta Agustin Egaña.. Bilbo(Bizkaia)

85. 54 orria.4.EBAZPENA Testuinguru sindikala.

EBAZPENA.

Proposamena:

Ebazpena kentzea.

Zergatiak:

Aurreko enmendakinekoak.

Emendagileak: Ana Fernandez eta Agustin Egaña. Bilbo(Bizkaia)

86. Horria 54.4.EBAZPENA Testuinguru sindikala.

EBAZPENA.

Proposamena:

Erantsi, "berarekin bat egin dezaten" esakunearen ondoren: "Euskal nazioaren errealitatea bereganatzen duten neurrian,"

Zergatiak:

Emendagileak:Jose Migel Martinez Dominguez.. Gazteiz (Araba)

NAZIOA ERAIKITZEKO PROIEKTUAREN BARNEAN GIZARTE ALDATZEA

29

87. Orria GUZTIAK. ESALDIA Guztiak.

Ponentzia guztian.

Proposamena.

"Euskadi" hitza, "Euskal Herria"z aldatzea.

Zergaitiak:

"Euskadi" hitza, Sabino Aranak asmatutako neolojismo bat izateaz gain, Ezker Abertzalearen garapen eta aurrerapausoei inungo mesederik egiten ez dion "herrialdekeri" bat izkutatzen du.

"Euskal Herria" hitza kontzeptu orokorragoa da eta ENAMek normalean erabiltzen dena, berea delarik.

Emendagilea: Koldobike Munilla. . Erribera-Erdialde (Nafarroa).

88. 7. orria.ESALDIA.

I.1. Joerak eta ausnarketarako oinarriak.

Proposamena.

"Intolerante" eta "abertzaletasuna"ren artean jarri "zapaltzailea".

Zergatiak:

Hitz horiek Euskal Herrian dagoen nazionalismo espagnolaren izaera zehazkiago definitzen du.

Emendagilea: Jose Ramon Gonzalez Pereda. . Bilbo(Bizkaia).

89. 8 orria. 12. ESALDIA.

I.2. LABen ekinbidearen zutabeak.

Proposamena:

Esaldia kendu eta jarri: "Istiluan diarduten bi alderdiek, hau da, Estatu espainola, Ajuria Enea, Nafarroa eta Ma-

Nazioa eraiki eta
qizartea qainditu

drilgo Itunen laguntzarekin eta, beste aldetik, ENAMek jarrerak bere hartan iraunarazten dituzte, honela en-
frentamendu zibilaren arriskuraino iritx litekeen egoera politikoa usteltzen delarik.

Zergatiak:

Emendagilea: Eraiki (14 afiliatu) Goierri-Behea (Gipuzkoa)

90. 8. 13. ESALDIA.

1.2. LABen ekinbidearen zutabeak

Proposamena:

Esaldia kendu eta jarri "Elkarrizketa egiteko egiazko borondatea agertu behar da, alor zehatzetan kontzezio-
ak eginez baina herri garen aldetik zor zaizkigun eskubide historikoak aitortuta".

Zergatiak:

Emendagilea: Eraiki (14 afiliatu) Goierri-Behea (Gipuzkoa)

30

91. 8. orria . 14. ESALDIA.

1.2. LABen ekinbidearen zutabeak

Proposamena:

Kendu "zor zaizkigun eskubide demokratikoen eskutik etorriko da bakea Euskal Herria" esaldi hortan bertan
kendu "jardunbide demokratikoa" eta jarri "demokrazioaren oinarritzko arauak".

Zergatiak:

Emendagilea: Jose Ramon Goikoetxea "Ardotxi". Hernani (Gipuzkoa)

92. 15. orria 15 . ESALDI BERRIA.

2.1.1. Lan legeria.

Proposamena:

29 eta 30. esaldien artean hau tartekatu: "lan merkatuaren malgutze prozesua" ez da neutroa. sexuaren ikus-
puntutik: behin-behinekotasun eta langabezia z gain, beste datu bat topatu dugu: 1994 urtean EAEn emakumeei
egindako lan-kontratu guztien %26a denbora-zatikakoak izan ziren. Honelako kontratuak izateak esan nahi du
ordainketa eta estaldura sozial urriagoa izatea. Honela, pobrezia femeninoa areagotu egiten da, ez bakarrik la-
nik ez egotearren, bizirauteko gutxieneko baldintzak betetzen ez dituen soldata daraman enpleguaren ondo-
rio baizik.

Zergatiak:

Aldakuntza sozial gaiari egiten zaion aportazioa eta emakumeen bazterkuntzan arazoak dauzkan ondorioak.

Proposatzailea: M^a Jose Arraiza Núñez.. Bilbo (Bizkaia)

93. 15. orr. 32. ESALDIA

2.1.1. Lan-legeria

Proposamena:

Kendu "estrategia oldarkor eta erasotzailea sortzea" eta jarri: "martxan jartzen saiatzea".

Zergatiak:

Proposatzailea: Eraiki (14 afiliatu) Goierrri Behea (Gipuzkoa)

94. 15. orr. 33. ESALDIA

2.1.1. Lan-legeria

Proposamena:

Esaldia kendu eta, haren ordean, hurrengoak jartzea: "Egungo gizarte kapitalistaren gaurregungo ereduaren osotasuneko alternatiba sozio-ekonomikorik ez eta Euskal Nazioaren Eraikuntzaren mesedetan, behar diren neurrietan, enpresako gestioan parte hartzea eta ezinbesteko erreibindikazio sozialak batera jarri behar ditugu praktikan (azken hauen edukin kritikoan, nahi bada, lehiakortasun ideia ezinbesteko erreferentzia da). Ez da euskal langileriarik izango, Euskal Herrian enpresa lehiakorrik ez bada."

Zergatiak:

Proposatzailea: Eraiki (14 afiliatu) Goierrri Behea (Gipuzkoa)

95. 24 orr. 81. ESALDIA

2.1.3. Negoziazio Kolektiboa

Proposamena:

Kendu: "Komenioaren ... aitortuta ere".

Zergatiak:

Baieztape hau ez da egiazkoa eta, testuaren osotasunetik ondorioztatzen den bezala, alor hau gaurregun patronalaren eskuetan dago, lehiakortasuneko ereduaren ardatz baita (produktibitateak, etab.). Alor honetan, batzorde edo burokrazia sindikaletan partaidetzarik eza saihestezinena da.

Proposatzailea: Jose Alcedo Gil. Bilbo (Bizkaia)

96. 24. orr. 81 ESALDIA

2.1.3. Negoziazio Kolektiboa

Proposamena:

81. esaldia amaitzen den tokian, hurrengoak erantsi: "Komenio sektorialak gero eta hondatuago dauden arren eta komenio hauetan langileen eskuhartze-dinamikarik ez badago ere, enpresa mailako negoziazio-esparrua langileen artean finkatuta dagoen arren, langileriaren baitan lan handia egin beharra dago, egungo koiunturan negoziazio horrek dauzkan mugak erakusteko eta, muga hauek gainditzeko egiazko erreibindikazio-lorpenak eskuratzeko premia agerian uzteko helburuz.

Zergatiak: aurreko emendakinekoak berberak.

Proposatzailea: Jose Alcedo Gil. Bilbo (Bizkaia)

97. 26. orria. 92. ESALDIA

2.1.3. Negoziazio Kolektiboa

Proposamena:

Hasieran, "lana"ren ondotik "eta aberastasuna" eranstea.

Zergatiak:

Aberastasunen banakuntza eta lanaren banakuntza batera erabili behar ditugu, beti.

Proposatzailea: Koldo Barcena. . Bilbo (Bizkaia)

98. 28. orr. 99 eta 100 ESALDIAK

2.1.3. Negoziazio Kolektiboa

Proposamena:

Bi paragrafo hauek kendu eta, horien ordez, hurrengoak jarri: "Ulertzearen bidez lehenik, eta lan-baldintzak, antolakuntzaren hierarkizazioa, soldata-eskalak, inbertsioen banakuntza eta enpresan lorturiko etekinak eta bes-telakoak zehaztean, enpresariak daukan boterea auzitan ezaririk, kontua da langileak botere horren muga-keta planteatzea, gizartearen botere ugaltzaile ez-demokratiko den aldetik.

Lanaren antolakuntza hierarkizatuari erabat eutsita, erakunde sindikalen suntsiketa ekarri ohi duten "kalitate zirkulu" eta antzerako batzordeek sor lezaketen arriskuak handiak izanik ere, langileak enpresaren kudeaketan esku hartzea aurrerapausu itzela izango litzateke egungo gizarte autoritarioa ulertzerako bidean eta, gizarte horrixe, bertan langileek betetzen duten eginkizun behinena agertuko luketen partaidetzazko eredu demokratiko berriak planteatuko lizkioke bere buruari."

Zergatia:

Lan harremanen demokratizazioaren aldeko borrokan gaurregun dagoen arazorik nagusiena ez da gestiokidetza. Bestelako sorburuak dauzka honek: oraingoak ez bezalako sistema eta egoera historikoak, gerra mundialaren ostean langilearen egoerak gure honetan sortuko ez diren elementu kontraesankorrak dauzkate (sistema hau eta enpresariak nepresa bertan behera utzi izana konparatu nahi ez baditugu, behintzat).

Kontua, beraz, ez da partaidetza-ereduen artean aldeak bilatzea, beste hau baizik: lehentasunezko lana, langileak desirakatsi egiten dituen eta enpresan kapitalaren diktadura iraunarazten duen egungo eskuhartze delegazionista eta ekonomizista ordezkatzeari, alegia.

Proposatzailea: Jose Alcedo Gil. . Bilbo (Bizkaia)

99. 28. orr. 100 ESALDIA

2.1.3. Negoziazio Kolektiboa

Proposamena:

Kendu "fase historiko"tik esaldiaren amaiera arte eta jarri: "aurrerakuntza historikoa da, enpresa alorrean erabaki- eta kontrol-lanabesetan langileria sar dadin, barruti honen giltza, historikoki, enpresariaren eskutan bakarrik egon delako. Ohi gabeko prozesu delikatu honetan aurrera egiteko sekulako orekamena erakutsi behar da, ezinbestez, Euskal Nazioaren Eraikuntza egingo bada."

Zergatia:

Proposatzaileak: Eraiki (14 afiliatu) Goierrri Behea (Gipuzkoa)

Proposamena:

105. esaldiaren ondoren, hurrengo zortziak eranstea:

- 106. "Gaurdaino, gure ekinbide sindikalaren lehentasunezkoa, enpresaren baitan, langileriaren interesen hila-biziko defentsa izan da. Soldata mailak mantendu edo altxatzea, lan baldintza, lan segurantzaren eta lanpostuei eustea, jardunaldiak murriztea, prekarietatearen kontrako borrokan aritzea eta duintasunezko lan-baldintzak mantentzea, orohar. Horixe izan dugu zeregin behinena".

- 107. "Horrek guztiak ez du galarazi gure interesen kontrako hamaika erabaki hartzerik, enpresa-isketak guri logiko eta atzeraezinekotzat aurkeztu izana eta hobereenera jota ere, zeharo eztabaidagarriak izan diren erabakietan sindikatuok eskuhartu eta kontrolatzeko aukera izan ez dugularik."

- 108. "Gaurdaino praktikan jarri izan den estrategia sindikala, bere birtute guztiekin, argi eta garbi agertu da ez dela gauza izan honelako egoerei, enpresariaren botere diskrezionalari eta goraka datorren langabezi egoerei aurre egiteko. Bestela esateko, endakapen sindikalari aurre egin ahal izateko. Nazioaren Eraikuntza helburuan bete-betean egokitzen den euskal enpresen biziraupen eta garapena gure Sindikatuarentzat erabateko lehentasun bihurtu dela onartzen badugu, baieztapen honek dauzkan ondorioen eta inplikazioez jabetu behar dugu."

- 109. Gora-behera hauetan, gestioakidetzak (hau da, enpresen osotasunezko gestio konjuntua) negoziazio eta akordio bidez, enplegu sorkuntza, langileen kontratutegia eta enpresaren baitan sorturiko aberastasunen berdintasunezko banakuntza elkargarri bihurtzeko alternatiba sindikalik aurreratuena izan beharko luke. Honenkin batera, bere garapenerako beharrezkoak diren baldintzak mantenduko direla bermatuko luke"

- 110. "Prozesu zail bezain berrizale honek oreka-politika landua (baina ez beti ongi ulertua) egitea eskatzen du, langileriaren erribindikazio-praktika eta gestio-prozesuetan inplikazioarekin batera. Euskal langileok geure enpresen etorkizunaren, geure etorkizunaren protagonista izan behar dugu, konplexurik gabe, aurkezten diren problematikei soluzioak emateko geure gaitasunaz bestelako mugarik gabe."

- 111. "Gai hau sakon ikasten hasi behar dugu, Euskal Herriko funtsezko enpresetan gestioakidetzazko praktikak planteatzen hasita. Jasan duten errealitate latz eta duten etorkizun zailarekin batera, enpresa horiek suspertu eta finkatzeko premiak erronka honi baietz esatera behartzen gaituzte. Ez dugu itxaron behar egoera endakatu eta itzulezin bihurtu arte estrategia berri honi ekiteko. Orain egin behar dugu, horretarako baldintza egokiak dauden honetantxe. Botere-erlazioen, joko araubidearen osterako definizioak enpresariei exigitzea, erabaki-alorrean gure agerpena negoziatzea, enpresa osatzen duten estamentu guztientzat mesedegarriak diren emaitzak sortzen dituen kontratutegia xedatzea, boterea eta sorturiko errentak ostera banatzeko."

- 112. "Badago Euskal Herrian antzerako prozesua daraman enpresaren bat: gidari izan genezake horietako bat geure esperientziarako: asmatutako puntuak, guk berdin jarduteko; akatsak, gu horietan eror ez gaitezen; nolana ere, bide zail, nekoso, ezegun eta kontraesankorrean barrena: baina, gure ustez, horixe du euskal langileak bermerik sendoena, bere etorkizunaren jabe izango bada."

- 113. "Laburbilduz, gure ustez LABek (aurreko eginkizun defentsiboaren ordezkari den) eginkizun ofentsibo hau bete beharko luke. Langileriaren defentsazko ekinbideak eta enpresaren gestioakidetzaren aritzea litzateke egokia. Honela "lan-gizarte" eta "enpresaren jabetza eta gestio" alorretako mugak gaindituko lirateke, ekinbide sindikala, euskal industriaren garapen eta Nazio Eraikuntzaren prozesuan, etorkizun hobearen alde euskal langileak daraman borroka erabateko zentzumenez jantziko duen osotasunean txertatzeko."

Zergatiak:

Proposatzaileak: Eraiki (14 afiliatu) Goierrri Behea (Gipuzkoa)

101. 32. orr. 117 ESALDIA

2.2.1. EGSEren oinarriak

Proposamena:

Kendu: "are ikuspegi posibilitaren barnean ere"

Zergatia:

Atalaren egiturari kritika orokorra. Bi alderdi berezitan dago banatuta: batean, EGSEren definizioa eta helburuak zehazten ditu; bestean, plataforma erreibindikatzailea. Lehen zatian planteamendu okerra egiten du (ni, behintzat ez nago ados planteamendu horrekin): gorpuzteko planteatzen eta aurrakusten duen eskenatokia ez da erreala.

Emendagilea: Jose Ramon Goikoetxea "Ardotxi". Hernani (Gipuzkoa)

34

102. 32 orria. 120.ESALDIA.

2.2.1. EGSEren oinarriak

Proposamena:

120 eta 121 esaldien artean beste hau gehitu: "Honetarako, seguraski, Euskal Herriaren subiranotasuna lortzea beharrezkoa izango da, gizartean honen islada langile mugimendu sindikal eta abertzaleak bultzatuko duela. Paraleloki, europetar ingurunea, langile eta herrien ekinbidearen bidez, esperoskoa da aldatuko dela, errespetu eta kooperazioan oinarritutako ekonomia politiko bat eraikitzea ahalbideratuko duela, eta ez, orain bezala, esplotazioan eta gutxi batzuen aberastasunean oinarritutakoa bezala. Bitartean, gure esparrutik, EGSE egituratzea posibilitatuko duen ardatzak aldarrikatuz joan behar gara."

Zergatiak:

Aurreko enmendakinaren berdinak.

Emendagilea: Jose Ramon Goikoetxea "Ardotxi". Hernani (Gipuzkoa)

103. 32 orria.ESALDI BERRIA

2.2.1. EGSEren oinarriak

Proposamena:

126 eta 127 esaldien artean beste hau gehitu: "Berrindustrialketa eta enplegua sortzeko edozein politikak, banku nazionalizatu baten beharra du aurrezki eta beharrezkoak diren baliabide finantziariak bereganatzeko tresna giza, politikoa hori aurrera eramatea posiblea izan dadin. Gainera banka da industri krisiaren onuradun handia. Bere irabaziak haundituz doaz enpresak ordaindu behar dituzten kostu finantziarioak beraien galeren arrazoiz garrantzitsuena den bitartean."

Zergatiak:

Aurreko enmendakinaren berdinak.

Emendagilea: Jose Ramon Goikoetxea "Ardotxi". Hernani (Gipuzkoa)

104. 33 orria. 132 ESALDIA.

2.2.1. EGSEren oinarriak.

Proposamena:

Esaldia honengotik aldatu: "Honako ardatzak oinarrizkotzat izango dituen proiektuaren arabera Administrazioaren erreforma:

-Sektore publikoa indartu egungo pribatizazio joeren aurrean. Serbitzu publikoen mantentze eta zabalkuntza.
-Gizartearen partehartzeari irekia izango den Administrazio baten eraketa, demokrazia eta gardentasuna bermatzeko.

-Administrazio publiko bat eratu nun bertako langileak gizarteari lialtasunez ibiliko dira bere egunero zereginetan, honetarako, gardentasun informatiboa eta gizartearen partehartzea garatuko duten baliabideak erabiliz.

Zergatiak:

Ez da nahikoa Sektore Publikoa eta Administrazioaren printzipioak argi geratzea, egun bizi dugun desmantelazio prozesuaz ohartu behar da.

Emendagilea: Irantzu Zabala eta Lander Etxaberria Bilbo (Bizkaia)

105. 35 orria. 148.ESALDIA.

2.2.3. Enplegua, elkartasunezko etorkizun egonkorra.

Proposamena:

"errotik" aldatu "arrazionalki" jarriaz.

Zergatiak:

Hitz hau erabiltzea gure radikaltasuna baieztatzea bilatzen duela dirudi, enpleguaren kasuan, errotiko arazoa izanik, konponbideak arrazionalak izan behar dutelarik.

Emendagileak: Ana Fernandez eta Agustin Egaña.. Bilbo (Bizkaia)

106. 36 orria. 151.ESALDIA.

2.2.3. Enplegua, elkartasunezko etorkizun egonkorra.

Proposamena:

"...agintzen digu... kontrolatuko lukete" arte zeragatik aldatu: "enpleguaren sorrera, jardunaldiaren murrizketa eta lan banaketarako politiken finantziaketari buruzko fondoei buruzko eztabaida batean aurrerapausoak emanez".

Zergatiak:

Gizarteko eragileen arteko eztabaidaren ondorio izango den desobediencia zibila eta "Fondoaren" kontzeptuaren zehaztapen moduei buruzko ebazpena, hemen propaganda ildotik agertzen da eragile sozial horien barnerapen errealik gabe.

Emendagilea: Jose Alcedo Gil . Bilbo (Bizkaia)

107. 36 orria. 154.ESALDIA.

2.2.3. Enplegua, elkartasunezko etorkizun egonkorra.

Proposamena:

"lan jardunalditik" aurrera honengoagatik aldatu: la-jardunaldi eta aparteko orduen erasokor eta generalizatuak murrizteak bakarrik zabalduko dizkio ateak egiazko enpleguaren banaketari"

Zergatiak:

Lan-jardunaldiaren murrizketak baliogarrtasun urria izango du paraleloki apartako orduak ezabatzen ez baditugu.

Emendagilea: Koldo Barcena. Bilbo (Bizkaia)

108. 36 orria. 156. ESALDIA.

2.2.3. Enplegua, elkartasunezko etorkizun egonkorra.

Proposamena:

"...sujetua izango dela" ondoren jarri: "Horregatik, gaurko dinamika hautsiko duen irtenbide propio eta berriak aportatuko dituen enplegu eta ondasun banakuntzari buruzko eztabaida garatuko du LABek".

Zergatiak:

Langileari kasturik gabeko lan-jardunaldi murrizteaz aritzea ez da nahikoa. Eztabaidatu eta enplegua sortzeko irteerak aurkitu behar dira.

Emendagilea: Ana Fernandez eta Agustín Egaña.. Bilbo (Bizkaia)

109.38 orria. 156 ESALDIA.

2.2.5. Gizarte antolamendua.

Proposamena:

Datorrena jarri: "Lan-esparrua demokratizatzeko helbururantz joaz, kontutan hartu behar dugu gizakien sexua, bere jatorria, bere sexu aukera edo indarrean dauden eskema haiekin bat ez datozen bere jokabideak. Indarrean dauden eskema hauek sarritan bazterketaren ondorioak dira, agenteak direlarik bai enpresioak bai langile berak. Elementu guzi hauek langileak kategorietan sailkatzeko arrazoi izan ez daitezten eta gertatzen diren diskriminaketei aurre egiteko behartua dago LAB lan egitera."

Zergatiak:

Enmendakina osoagoa da. Babes solidarioa kotzeptu positiboa da; baina aldaketa kulturala gauzatu behar da.

Emendagilea: Lander Etxebarria Garitzaelaia. Bilbo (Bizkaia).

110. 39 orria. 3. EBAZPENA ESALDIA.

EBAZPENAK

Proposamena:

Erantsi "Gizarte Segurantzarako Sistema Publikoaren aldeko estrategia sindikala".

A) Berez urria zen gizarte babespenari eraso egin eta prestazioak eskuratzeko baldintzak latzago bihurtzen dituzten neurriei arbuiorik sendoena adierazten diogu, eta dei egiten diegu mugimendu sindikal eta sozialei, behin eta berriz iragarri zaizkigun neurri antisozialen aurrean oldarkortasunez erantzuteko, PSOE eta PPren gizarte politikaren gaitzespena, erakunde erregionalisten lagunduta, ekintza sindikalaren lehentasunezko frontea izango da guretzat datozen hilabeteetan.

B) Euskal gizarte osoaren eskari eta beharrianak asetu eta, errentak birbanatzeko benetako politiken bitartez, prestazio unibertsalak eskainiko dituen Gizarte Segurantzarako Sistema Publikoa garatzeko legegintzazko erabateko eskumenak exijitzen ditugu Hegoaldeko euskal lurraldeentzat.

C) LABek ez ditu bere ildo sindikalean sartuko egongo balira bezala Borondatezko Gizarte Aurrikuspenarako Entitateak (BGAE/EPVS) sustatuko. Dena den, eta hortik hasita, sektor ekonomiko batzuetan ematen ari diren urratsak kontutan hartuz, BGAE-EPVS delako horietan parte hartuko dugu, era dinamikoan aztertuz honako helburuen garapena:

-BGAE-EPVSen kontrol sindikala-bai kudeaketan bai inbertsio organoetan-lortzea.

-Korporatibismoa, iharduera insolidarioak eta Negoziazio Kolektiborako erreibindikapen gaitasunaren ahultzea ekiditzea.

-BGAE-EPSVek sortzen dituzten mozkinak euskal industri ehunaren garapenerantz bideratzea, eta ezein kasutan ere ez inbertsio espekulatibora.

-Fondo gehienak Euskal Lurralde Nazionalaren barruan inbertituko direlako bermeak exijitzea.

-BGAEen baliabideen bitartez industri sektoreetako egitasmoetan parte hartzea, bai eta teknologia berrien eta I+C politiken sustapenean, ingurugiroan, trebakuntzan eta helburu hauetarako Entitate eta tresna finantziero propioen sorrera.

D) Eraikuntza Nazionalaren baitan Lan harremanetarako eta babs sozialerako Euskal Esparruaren aldeko apostuari aurre egiteko Euskal Gizarte Segurantzaren ereduari buruzko eztabaida bat sindikatu barnean bultzatzeko konpromezua hartzen dugu.

Zergatiak:

Ebazpena osoago egiten du.

Emendagilea: Autoridad Portuaria de Pasaia Sail Sindikala. Oarso-Bidasoa (Gipuzkoa)

111. 40 orria. 2. Ebazpena ESALDIA.

EBAZPENAK.

Proposamena:

Lehen lerroan "Enplegua" eta "sortzea" tartean sartu: "iraunkor eta giza-produktibitatea".

Zergatiak:

Zer matatko enplegua nahi dugun zehaztu behar dela uste dugu.

Emendagilea: Autoridad Portuaria de Pasaia Sail Sindikala. Oarso-Bidasoa (Gipuzkoa)

112.43 orria. 3 ESALDIA.

3.1. Sindikalismoa, gizartaren aldakuntzaren sujetu.

Proposamena:

"...lortzeko beharrezkoak..." hasi eta bukatu arte kendu eta datorrena jarri: "...lortzeko, gainontzeko indar abertzaleekin akordio zabalak lortzeko, elkarrekin bidea egiteko, bere estratejia marraztuko du."

Zergatiak

Emendagileak: Eraiki (14 afiliatu) Goierrri-Behea (Gipuzkoa)

113. 44 orria. 6.ESALDIA.

3.1. Sindikalismoa, gizararen aldakuntzaren sujetu.

Proposamena:

"...lan-baldintzen errotiko..." ordez jarri: "...lan-baldintzak hobetzeko..."

Zergatiak

Emendagileak: Eraiki (14 afiliatu) Goierrri-Behea (Gipuzkoa)

114. 45.orria. 14.ESALDIA.

3.2.Sindikalismoak eskuhartu eta antolatzeke gune berriak.

Proposamena:

Esaldia kendu.

Zergatiak:

Emendagileak: Eraiki (14 afiliatu) Goierrri-Behea (Gipuzkoa)

115. 45 orria. 15. ESALDIA.

3.3. Ekinbide Sindikala enpresatan.

Proposamena:

"...berreskuratu..." ordez "bultzatu" jarri.

Zergatiak:

Emendagileak: Eraiki (14 afiliatu) Goierrri-Behea (Gipuzkoa)

116. 46 orria. 22. ESALDIA.

3.3. Ekinbide Sindikala enpresatan.

Proposamena:

"...LABen ekinbide..." hasi eta bukatu arte kendu eta ordez jarri: "LABeb sindikal gintza orokorra gestioatzeko, momentuero lantoki bakoitzeko egoera berezietara egokitua".

Zergatiak:

Emendagileak: Eraiki (14 afiliatu) Goierrri-Behea (Gipuzkoa)

117. 46 orria. 26. ESALDIA.

3.3. Ekinbide Sindikala enpresatan.

Proposamena:

"Langileen batzarra..." hasi eta bukaeraino kendu eta jarri ordeaz: "langileen asanbladetako gehiengoaren erabakiak nahitaez beti errespetatuak izango diren arau demokratikoak bultzatuko ditu lantoki guzietan LABek."

Zergatiak:

Emendagileak: Eraiki (14 afiliatu) Goierrri-Behea (Gipuzkoa)

118. 46-47 orria. 30. ESALDIA.

3.3. Ekinbide Sindikala enpresatan.

Proposamena:

Esaldiaren azkenen erantsi: "Madril eta Gasteizgo gobernuen indar gabeko sozioekonomiko politikak bultzatutako enpleguaren suntsiketa hau, sare produktiboaren indar berritzea laguntza ez duten ENAMeko jokatutako bideak osatzen dute."

Zergatiak:

Emendagileak: Eraiki (14 afiliatu) Goierrri-Behea (Gipuzkoa)

119. 47 orria. 30. ESALDIA.

3.4.1. Ekinbide sindikala eta berreskalduntzea.

Proposamena:

Sindikatuaren barne-bizitza eta bertako militanteak euskalduntzea da lehen helburua, horretarako: -Lehen bai lehen EUSKARAK behar duen tokia bermatu beharko da. Kontuan hartuko dira tokian tokiko ezauzgarriak, abidibez, herrialdea, kokapen geografiko, liguistikoa, euskaldunen kopurua e.a.

Gure eguneroko lana, hots, gure ekinbiede sindikala edo sindikalgintza euskaraz garatzea litzateke abiapuntua. Ya sabemos castellano BAINA EUSKARAZ MINTZATU, BA DA GARAIA.

-Atal sindikaletatik lurralde zein sektore estrukturatik igaro eta kontseilu nazionaleraino, tokian tokiko euskararen gaitasuna eta diagnostikoa burutu ondoren, euskararen eskailerak igotzeari ekin behar diogu gure Estatutuetan 2. ezaugarrian jasota dagoen bezalaxe.

KOMUNIKAZIO arloan, bain barnekoa zein kanpoko -Iraultzen, sektoreetako argitarapenak, atal sindikaletako aldizkariak, edozein panfleto, prentsa agiriak...- zehaztu eta bermatu beharko litzateke euskararen presentzia.

KANPORA begira AKUILARI lana egiten jarraitu beharko dugu oraindik ere, administrazio laborala et batez ere mudu sozio-ekonomikoa benetan auskalduntzeko asamoarekin.

Hau kontuan harturik Idazkaritza Nazional berriak plangitzaren bidez tokian tokiko neurriak garatzeari ekin beharko dio.

Zergatiak:

Eraikuntza nazionalen duen garrantzia kontuan harturik, eta gure Sindikatoak helburu horrekin duen atxekimendua, iruditzen zait orokorrean aztertu dela gaia, azterketa zehatzagoa egitea alde batetik eta gai hau behin-beriz zehaztea eskatzen duelako gure egunoroko lanean, hots, gure sindikalgintzan.

Emendagilea: Iñaki Jauregialtzo Beitia. Lautada-Gorbeia (Araba).

120. 48 orria. 33 ESALDIA.

3.4.2. Intsumisioa eta sindikalgintza.

Proposamena:

"Armada española" "serbitzu militarra" rengatik aldatu.

Zergatiak:

Emendagilea: Eraiki (14 afiliatu) Goierri-Behea (Gipuzkoa)

40

121. 48 orria. 33 ESALDIA.

3.4.2. Sindikalgintza eta intsumisioa.

Proposamena:

"espaniarra" hitza kendu.

Zergatiak:

Euskal Gazteria Armadaren intsumosotzat dauka bere burua, arrazoi asko direla medio. Erabakia bere burua zeharo antimilitaristatzat daukaten pertsonak eta, beste aldetik, Espainiako Aramda bati intsumisioa aldarrikatu duen beste batzuek egin dute. Bi jarrerak ere, LABen ikuspuntutik errespetatu eta sostengatu behar ditu. Bai Estatuaren lurraldeen osotasunaren bermetzat agertzen den Armada arguilatzen duten pertsonak (Konstituzio espainolaren bitartez Autodeterminazio eskubide askatasun osoz praktikan jartzea eragotzita dagoen arren) bai gizarteaz duten irizpide antimilitaristagatik edozein armada arguilatzen dutenek ere, gure Sindikatuan tokia izan behar dute eta, noski, gure sostengua, laguntza eta inplikazioa jaso behar dute.

Emendagilea: Lino Rodriguez Horna. Bilbo (Bizkaia)

122. 48 orria. 37-38-39. ESALDIAK.

3.4.3. Euskal Eskola Nazionala.

Proposamena:

37, 38, 39 eta 40. esaldiak kendu eta hauek jarri:

(37) Nazioaren eraikuntzan eta harreman sozialen eredia tajutzea hezkuntzaren garrantziak gure Sindikatuari agintzen dio Euskal Hezkuntza Sistema Nazionala garatzea.

(38) Euskal Nazioaren eraikuntzak behar duen (eta honen eragilea Hezkuntza Zerbitzu Publikoa izango duen) Euskal Hezkuntza Sistemak eman behar dizkie erantzun egokiak hezkuntza eta kultura alorretako eskakizunei.

(39) Indarrean dagoen hezkuntza sistemari premia egin behar zaizkio aldaketa egiturak, erabateko subirota politikoa praktikan jarri. Honek hezkuntza alorrean euskal hezkuntzaren administrazioaren erabateko gaitasuna eskatzen du, sistema hori ordenatu eta kudeatzeko. Honela, hezkuntza politika orokorrari eta hezkuntza proiektu jakinei buruzko erabakietan interesa duten edo eraginda dauden sektore sozial guztien partaidetza aktiboa suspertuko litzateke.

(40) Honela bada, geure irakaslegoa eta LHEG sortu eta garatzea gure ekinbide sindikalaren helburu estrategikoak dira.

Zergatiak:

Planteamendu orokorrarekin bat datorren arren hainbat kontu nabarmentzeari funtseskoa deritzot:

- Hezkuntza sistema eskola baino kontzeptu zabalagoa da.
- "Kurrikulum" kontzeptua ulergaitza da jende askorentzat.
- Zerbitzu publikoaren alde buru-belarri jardun behar dugu.
- Irakasle-gorputza eskatzeak, sistema administratiboaren alde jartzen gaitu.

Emendagilea: Iñaki Gonzalez Murua.. Bilbo (Bizakaia).

123. 48 orria. 47. ESALDIA.

3.4.3. Euskal Eskola Nazionala.

Proposamena:

"Nazional" hitzaren ordezt, agertzen den guztietan, "publiko" hitzarekin ordezkatu.

Zergatiak:

Argi eta garbi gaude Euskal Eskola Publikoaren alde, Euskal Herri osorakoa, gainera.

Emendagilea: Felix Ruiz. Errioxa-Araba (Araba)

124. 49 orria. ESALDI berria.

Atal BERRIA.

Proposamena:

Gure egunerokotasunean ezezik, gure helburuen erreferentziazko ardatza ere bada borrokan jardutea langileok gure OSASUNA lanpostuetan gal ez dezagun eta produkzio nahiz zerbitzuetako prozesuek gure INGU-RUGIROA arriskutan jar ez dezaten.

Egiaztapen honetatik abiatuko gara: lan baldintzak eta indibidualki nahiz kolektiboki jasaten dugun osasun galera nabarmena da, gure ingurugiraren kontra egiten diren erasoengatik.

Gure osasunaren errotiko defentsan jarraipide hauek onartzeak gure ekinbide sindikala indarberritzeaz gain, lortu nahi dugun garapen sozialaren eredua zehazteko unean lagungarri izango dugu.

Zergatiak:

Lan Osasun eta Ekolojiaren Kabinetearen sorrerak, gure osasunaren eta ingurugiroaren defentsan eta egungo produkzio formulen kritika sorrotzean hartu behar du oinarria.

Emendagilea: Juanjo Rodriguez Horna.. Bilbo(Bizkaia)

125.49 orria. ESALDI berria

Atal BERRIA.

Proposamena:

45. atalatik aurrera gehitu:

LANAREN BERKONTZEPTUALIZAZIOA GIZARTE SOLIDARIOAGOAREN URRATS BIDEAN.

(46) LABek, sindikatu soziopolitiko legez, eraikuntza nazionala eta eraldaketa soziala helburutzat hartzen dituen proiektua bultzatzen du. Xede bi hauen alde borrokatzeak, besteak beste, egungo giza harreman esparru guztietan osagi zapaltzailea den patriarkado estrukturalaren desagertzea bilatu behar du.

(47)

Sistema patriarkalak emakumeen zapalketaren oinarria den sexuaren arabera lan banaketa ezarri eta irau-nerazten du. Halaber, giza esparru guztietan gauzatzen dela baiztatzerakoan, nabarmendu behar dugu gizar-tearen egiturazte osoak, oinarritzko instituzioetatik hasita, familia (ezinbesteko zutabea delarik), eskola..., azke- nengo botere generaino sexuaren arabera bereizkeriaren printzipioa duela oinarri.

(48)

Sexuaren arabera lan banaketa gaitziteak lanaren kontzeptualizazioa bere berraztertzea eramten gaitu. Beronen arabera, emakumezkoen etxea eta senirtearen arduraren eta zainketa eksklusiboki atxekitzeaz gain, eginkizun hau ez da lantzat hartzen "ekoizpen informala" (BEGen agertzen ez dena) kokatzen delarik.

Nazio Batuen Erakundearen azterketa batek, monetizatu gabeko emakumezkoen ekoizpen izkutuaren balio mundu osoko produktuaren %45 inguruan kokatzen du.

(49)

Familian sortzen den aberastasunak, "Ekonomia osagarria" deitzen denak, sistema kapitalistari gizarte gas- tuen maila baxuagoak iruneraztea bideratzen dio, berari esker, giza zerbitzuak murriztu edo ezabatzen baiti- ra: (haurrei, adinekoiei, gasioei... zuzendutako laguntza eta zainketa); halaber, soldata baxuagoak ordaintzea eta lan indarraren bisorkuntzari errezago barnerazte bere izatearen lotura giza klase zehatz batetik.

(50)

Denbora osorako etxeko lana eta lan merkatuan egindako aktibitate tasak kontutan harturik hoenako hau agert- zen da: emakumezkoen %81,2 eta gizonezkoen %70,8k ekoizpen ihar tuera bat betetzen dutela, eta %15 gehia- go delarik Emakumezkoen Aktibitate Tasa.

Beharrezko dugu Aktibitate Ekoizleen Tasak aldarrikatzea berauek ematen baitigute burutzen den lana eta su- getu langileen dimentsioa.

(51)

Etxean egindako lana kontabilizatzeak ondorio asko ekar litzake; lehenengo eta behin emakumezkoen egoe- ra soziala zein ekonomikoa hobetzea, BEGean sartzea Gizarte Segurantzaren eta Jubilazio eta Ezintasunerako erretiroak eskuratzeko lehen urratsa izango baita. Era berean, sozialki emakumezkoen ezartzen zaizkien hain- bat iharduera giza zerbitzuetatik hartzeko balio lezake, ekoizpen informalatik, formalera igarotzeko, hau da, lan- postuak sortzeko eta hedatzeko; eta azkenik, baita denontzako bizi baldintza hobekia ahalbidera ditzakeen be- netako ongizate soziala lortzeko ere.

(52) Sexuaren arabera lan banaketak emakumezkoen aipatu dugunez, etxeko lanak eksklusiboki atxekitzeak gain, lan merkatuko sarrera zaildu edota galerazten die ekonomia murgildura bultzatuz, Ekarpentxostenen azaltzen den lege, 1985an Murgilduko Ekonomia iharduten zutenen %77 emakumezkoak ziren.

Emakumezkoen izkutuko lana informalitatean oinarritzen den lan aktibo handien bezala azaltzen da. Etxetik kanpoko M.E.an iharduten emakumezkoen portzentaiari etxe barruko M.E.an ihardutenena gehitzen ba- diogu, egiaztapen honen neurria ikus dezakegu.

(53) Oztopoak oztopo, lan merkatuan sartzea lortzen dutenen emakumezko gehiengo batek lan baldintza eze- gonkor eta baztertzailak nozitzen ditu: aldi baterako lana (kontratu hauetan %80 emakumezkoak), laguntza eskubideak murriztuak, lanpostu eta maila zehatz batzuentzako debekua (goikoak), soldata baxuagoak, erre- konbertso eta kanporaketak nozitzen dituzten lehenak, promoziorik eza, eraso sexistak...

(54) Egoera hoenk sindikalgintza soziopolitikoari, LABeri ekinbide berezia eskatzen dio emakume langileen bi errealitateak aintzat hartu eta jorratu behar baitira:

-lan merkatu ofizialetik kanpo dauden emakume langileena, eta

-lan merkatu ofizialean lanpostua dutenena.

Zergaitiak:

Zail samar deritzogu txostenen garapen atal etza azpiatalen emendakinak egiteari, azken batean, emakume- en faldetik nazio eraikitze eta gizar tearen aldaketa proektuari dagokionez sindikalgintzatik egin beharreko ekarpena beste era batez zertzea proposatzen baitugu. Lanaren kaontzeptuaren berdefinizioa eta beronekiko, beronetan, zein gizartean bertan, giza subjektuen arteko harreman berdintzaile eta solidarioak lortzea da gure helburua.

Beste aldetik, jakin badakigu, sindikatuak arrazoi ezberdinak direla medio, aipatutako planteamendua aurrea eramteko beharrezko diren urratsak ez dituela eman, lehenik eta behin, aspektu hauei buruzko aus- narketa burutu ez duelako, baina baita, axolagabeki sexismoaren ezaugarrikerik agerikoenak (hizkuntza, or-

dezkapena, agerraldiak...) eta gizartean, gero eta gehiago "formalismo"z bada ere, zuzentzen joaten direnak, iraunerazten dituelako ere.

Azaldutakoagatik zatikako enmendakinak ez ditugu aurkeztuko, eta era berean, bidezko eta posible ikusten ez digunez osotara zuzendutako emendakina burutzea, gure ustez, sindikatuaren azterketetan, ihar-dueran eta egituratzean oinarritzko diren eta faltan dauden lan ardatzak agertu nahi ditugu proposatutako atal berri honetan.

Atal hau arlo mugatu bati badagokio ere, beste ekarpenekin batera ulertu beharra dago "Komunikazioa", "Ihaurduera sindikala eta emakumezkoen kolektiboa" eta "Antolakuntza"

Emendagilea: Itziar Lopategi Basterrretxea eta Nerea Lekue Tolosa. Bilbo (Bizkaia)

126. 42 orria. ESALDI berria.

Proposamena:

45. atalatik aurrera gehitu:

EMAKUMEEN KOLEKTIBO EKIKO EGINBIDE SINDIKALA

Bai mundu zabaleko, bai Euskal Herriko gehientsua emakumeok garelarik, geu gara oraindik orain, kolektiborik zigortu eta diskriminatuena geure eskubideak aitortuak izan eta praktikan jartzeko unean, bai hiritar garen aldetik, bai langile garen aldetik bereziki.

Horrela ba, ezin ahantzizkoa baita ponentzia honetan zehaztu ditugun kapital-lana harremanetan eragina duten kontu guztiek (ekonomiaren edo, hobe esan, emakumearen pobrezia mundializazioa, ipar hegoalde itilu iraunkorraren eta bloke politikaren eraginak emakumeengan, ongizate kontzeptua eta, lotsagabeki eta ordainik gabe, egoera horrek iraun dezan emakumeok ematen dugun laguntza, e.a.) eta, bestetik, langileriarengan bereziki eragina duten kontu guztiek emakumeon kolektiboan bortizki eta berarizko eragina daukatelako. Beraz, gure izaeran, nazio eraikuntzaren sujetu aktibo, lanik gabeko pertsona eta antzerako ezaugarriak ezezik, emakume nortasuna ere biltzen da eta, honela, gure problematika areagotu egiten da.

Estatistika-datu guztietatik baten bat jasoko dugu hemen:

Aktibitate-tasa: (lanean ari den edo bila dabilen eta lanerako prest dagoen 16 urtetik gorako biztanleria), 1994ko 3. hiruhilekoan egindako biztanleri inkestaren arabera:

EAE %50,9 (gizonezkoak %63,6 eta emakumeak %38,8)

NAFARROAN %48,2 (gizonezkoak %62,9 eta emakumeak %33,9)

Horretatik ondorioztatzen da emakumerik gehientsuok ez garela hartuak izaten balizko biztanleria aktibotzat ere.

Langabezi tasa (enplegua eskatzen dutenak bakarrik kontutan hartu, hau da, goian esan dugun bezala errealitatezko kopurua baino askoz ere txikiagoa da) 1994ko lehen sei hilekoan:

EAE: emakumeak %35,2, gizonezkoak %19,9.

NAFARROAN: Emakumeak %21,5.

Okupazio tasa (biztanleria aktiboarekiko, lana duen biztanleria)

EAE 1994ko lehen sei hilekoa: emakumeak %25,6, gizonezkoak %52,2.

Sektoreka, emakumeen %84,3k zerbitzu sektorean diardute. Industrian %12,1k eta etxegintzan %3k ozta-ozta.

Lanbideka: 17 lanbide-klasifikazioaren arabera, emakumeen %79,2 lau lanbidetan bakarrik sartuta daude.

Datu horietatik egiazko bereizketa sexuala ondorioztatzen da; honi erantsi behar dizkiegu emakumeak lan munduan sartzeko dauzkan zailtasunei.

Soldataka: Emakumeen batz besteko soldata, gizonezkoena baino %21,6 txikiagoa da. Honi erantsi behar zaio lanpostuak okerrago ordainduta daudela eta, gainera, lanpostu bereberetan aritzeagatik emakumeak gutxiago kobratzen duela.

Prekarietatea: Emakumeei egindako kontratuen %1 bakarrik da mugagabea. Zatikako kontratuen %80a emakumeek hartzen dute.

Legeek aldarrikatzen duten axaleko berdintasuna gora-behera, gertatzen diren lan diskriminazio guztietan sakondu nahi izan gabe ere, errealitatea zeharo bestaldekoa dela frogatzen duten gogoeta orokor batzuk egin beharrean gaude:

-Lanpostu bereberean sartzeko zailtasun haundiagoak (gizonezkoen baldintza beretan edo obeagotan enpresariak gizonezkoa kontratatzea nahiago du, honelako jokabidea azaltzeko hamaika eragozpen eta aitzakia jarri: erabateko dedikazioaren beharra, jardunaldiaren luzapena, bidaiak e.a.: kontu guzti hauek ezarri zailki-gun eginkizun sozialekin lotuta daude).

-Gizon ala emakume izan lan desberdinak agintzea; lanpostuak jatorritik balioa gehituz edo galduz bilakatuko da gizonezkoak ala emakumeak betetzearen arabera.

-Emakumeok orohar, kategoria profesional eta sozial apalagoko lanpostuak betetzen ditugu. Gainera, ia lanpostu guztiak familian eta gizartean bertan agintzen zaigun jardueraren jarraipenekoak dira (zerbitzuak orohar eta zerbitzu sozialak bereziki, garbitze lanak e.a.)

-Lan merkatuaren barruan, gizonezkoak baino aukera gutxiago ditugu lanbidean trebatzeko, gure lan-jardueraren ondorioz, lan jarduera profesionalek kanpo trebakuntzazko ikastaroak egiteko ditugun zailtasunengatik.

-Gizonezkoak baino soldata askoz ere txikiagoa. Batzuetan, gutxienetan, diskriminazio hau lanpostu bereberean gertatzen da. Baina, bai fondoz bai formaz, gertatzen dira diskriminazio xumeagoak hurrengo atal batean ikusiko dugun bezala.

-Birmoldaketa prozesuek eta kanporaketek, indibidualak nahiz kolektiboak, eragin latzagoa dute guregan eta, askotan gure kide gizonezkoen onespina daramate. Horrez gain, haurdunaldi, erditze, amatasunagatiko lizentziak eta antzerakoek, bat-bateko kanporatzearen sortzaile izaten dira, bestelako arrazoi "objetiboagoak" aitzakitzen badira ere.

-Krisialdi ekonomikoek eragin bortitzagoa dute guregan, kapitalaren interesei komeni zaien arabera, lanesku merke, mugikor eta baztergarria da gurea(ekonomia murgildua, ebentualtasun indize altuagoak, inungo ordaintaririk gabe administrazio publikoei legozkioken betekizun sozialak guk bete behar izatea e.a.)

-Zuzen eta zeharkako eraso sexistak.

-Etabar.

Berdintzat hartuak diren lanpostuetan ezezik, eginkizun zehatzetan desberdinak diren lanpostuetan ordaintze-diskriminazioari aipamen berezia egingo diogu. Hauen diferentzialtasun edo berarizkotasuna ez datza egiazko elementu objetiboetan baizik eta emakumeok eta gizonezkoek betetzen ditugun eginkizunen balorazio sozial desberdina inplizituki daramaten faktoretan (ariketa fisikoak, gizonezkoei "bakarrik" dagozkien makina batzuen erabilera, adingabetuen, gaisoen edo ezinduen zaintza e.a.). Faktore hauek urtetan zehar emakumeok betetzen ditugun lanpostuak gutxietsi egin dute. Edozein enpresatan atzeman daitezke hamaika adibide. Gure erreibindikazioak ez du lan berdinean soldata berdina exijitzera mugatu behar; aitzitik ordea, balio berdineko lanari soldata berdina izan behar du, LABen horrelako egoerak hautoemateko gauza izan behar dugu behingoz desager daitezen.

Emakumeengan eragina duten arazo ekonomiko eta sozialak ezin daitezke lan alorreko neurri hutsez soluzionatu, badakigu: patrialkalismoak, matxismoak, gure eginkizun sozialak eta antzekoen oinarrian azpizana egingo duen egiazko ideologi iraultza egin beharra dago. Baina Euskal Herriaren egiazko eraikuntza nazionala egin nahi badugu, justizia, elkartasun eta demokrazian oin hartuta, diskriminazio sexualaren eta honen ondorioen behin betiko bazterkuntzan saiatu behar dugu buru belarri.

Egoera hau konpontzeko ekinbide sindikalean neurri neutro batzuk hartzea ez da aski (lanpostu baterako irispidean formazko berdintasuna, soldata berdina e.a.:berdintasun printzipiotik ondorioztatzen da berdinei tratamendu berdina eman behar zaiela eta desberdinei desberdina)Horregatik emakumeon kolektiboaren aldeko egiazko neurriak hartzea beharrezkoa da.

Horrenbestez, aukeren egiazko berdintasuna indarrean ezarri eta, jakina, egungo diskriminazioak konpontzeko helburuz, lan merkatuan emakumeok integratzeko estrategia zehatzak planteatuko dituen Ekinbide Positiboko Lege baten eskakizuna gutxieneko baldintza giza hartuta, agertzen garen foro guztietan ekinbide positiboko neurriak aplikatu daitezkeen ahaleginak egin behar ditugu LAB sindikatuak.

Proposatzen ditugun ekinbide positiboko neurrien artean hurrengoak aipatuko ditugu:

-Zerbitzu sozial publikoak sortzea, orain daudenak hobetzea eta, famili kargak dituzten emakumeei, zerbitzu publikoen bitartez laguntzak ematea.

- Emakumeeri berariz zuzendutako trebakuntza eta birziklaizko ikastaro iraunkorrak eta bestelako iniziatibak ere bai.
- Alor publiko eta pribatuetan, lanpostu portzentaia bat erreserbatzea emakumeek bete ditzaten.
- Lanpostuari berez ez dagozion ezaugarri profesionalak suntsitzea, baldin eta emakumeon lanposturako irispidea galarazten badigu; era berean langileen sailkapenetan faktore subjektiboak suntsitzea.
- Hainbat sektoretan neurri zuzentzaileak ezartzea. Ordezkaritza txikiena duten lanbide eta sektoretan emakumeentzako (bakarrik) lan eskeintza murriztaileak. Jakina, lan koalifikazio berdina izatekotan emakumeak kontratatzearen jokatzea.
- Lanean eraso sexualean kontrako neurriak hartzea, honelako jokaerak zigortuz.
- Etabar.

Adierazitako guztiak ez dira gora-behera sindikal edo politikoen arabera hartu beharreko neurri jenerikoak, ez eta utopia hutsak ere, aitzitik negoziazio kolektiboan bertan agertu behar duten xedapenak baizik, bai sektoretan orohar, bai enpresa bakoitzean ere.

Honela bada dagozkien alorretara esandako neurriak har ditzaten aholkatzeaz gain, enpresetan kontu hauek gutxienez erreibindikatu behar ditugu:

- Sexuaren arabera gaur egun indarrean dauden lan banakuntzak gerta ez daitezten lanpostuak berriró baloratzea eta sailkapen profesionalak ostera tajutzea (lan maskulinoak eta femeninoak).
- Bere buruarentzat edo haurarentzat arriskua eragin dezaketen lanpostuetan ari diren emakume haurdunak, bestelako lanpostuetara pasatzeko aukera, hartutako eskubide ekonomiko edo profesionalak baztertu gabe eta aurreko lanpostua jasota.
- Umeak zaintzeko, orain baino langabealdi luzeagoak (bai gizonezkoentzat bai emakumentzat) lanpostua, ordainketa (kopurua eta indarraldia zehaztu beharko lirateke), eta Gizarte Segurantzarako kotizazioa erabat jasota.
- Lizentziak, baimenak, ordutegiaren murrizketa. Lizentzialdiak luzatzea, famili kargengatikiko berarizko baimenak sartzera e.a.
- Berarizko programak eta trebakuntzak.
- Berdintasunerantz jotzeko batzordeak sortzea, guregan eragina duten alderdi guztietan eskuhartzeko gaitasunez.
- Negoziazio mahai eta foro guztietan emakumeok agerpena izan dezagun bultzatzea. Autoestimaketa gorestea.
- Eraso sexual eta hizkera sexistaren kontrako neurriak hartzea.

Zergaitiak:

Sindikatuak emakume afiliatu eta delegatu taldeekin herrialdeetan hainbat asanblada egin ondoren, proposatzen diren jardupideak eta kontu honek berak ere, bere biziko garrantzia dutela iruditzen zaigu. Beraz, behar bezain besteko sakontasunez ekin behar zaie ponentzien eztabaida prozesuan.

LAB bezelako sindikatu batean, bere biziko garrantzia dauka, gure ustez, justizia eta partaidetza sozilezko irizpideen bidez Euskal Herria eraikitzea, hau da, Herri honetako kolektibo guztiek partehar dezaten moduz.

KONGresu honekin batera garaia iritsi da alor honetako jardupideen definizioan aurrera egiteko.

Ezin alferrik gal dezakegu aukera hau sindikatuko emakume afiliatu eta militanteen eta, bestetik, geure buruaren kritika egin gabe: Izan ere, berdintasunean aurrerapausoak emateko neurri eta bitarteko egokiak egitura eta pertsona guztiei dagozkien arren, ez da gezurrik alor hauetan jardunbide sindikala bultzatu eta dinamizatzea sindikatuko emakumeon lana denik, zuzenean eragindakoak baikara.

Emendagilea: Kontxa Lopategi. LAB EMAKUMEAK. Iruñea (Nafarroa).

127. 49 orria. EBAZPEN BERRIAK.

EBAZPENAK

Proposamena:

- Emakume-sujetu izatearen aierazlea den hizkuntzaren tratamendu ez sexista bermatuko da komunikazio arlo guztietan, egun arbitrarioak diren jokabideak gaindituz.

-Sindikatuak burutzen dituen azterketa sozioekonomikoetan emakumeen aldagaia ezinbesteko aztergai eta osagaia izango da.

LABek jarrera dritikoa azalduko du instituzioek erabiltzen dituzten lan estimazioarako estatiskeekin zeinek besteak beste "Aktibitate Tasa" alorraren planteamendu mugatuaren bidez errealitatearekiko datu desitxuratu eta faltsuak ematen baitizkigu.

"Aktibitate Tasa"ren aurrean "Aktibitate Ekoizleen Tasa" aldarrikatuko du ekoizpen informala deritzonaren neurria azalaraziz eta lanaren birkontzeptualizazioa eraginez.

- Sexuaren arabera lan banaketaren sortzaile eta iraunerazlea den Sistema Patriarkalaren auka borrokatuko du LABek, bere barne egituraketan, azterketatean, iharduera sindikalean, zein partehartze eta ordezkatzeko eta formakuntzan xede hau aintzat hartuko duelarik.

Emakumeen Arloak aipatuak atal hauei zuzendutako egitasmoa aurkeztuko du non epe zehatz baterako helburu eta jokabideak proposatu diren.

Aurrera egitea sindikatu osoaren eginkizuna izanik, beharrezkoa diren baliabideak ziurtatzeari eta erabaki eta ahalmen guneak bultzatzeari dagozkien egituretatik beharrezko deritzegu.

- Emakumeen arloari beharrezkoa diren baliabide eta bitartekoa zihurtafuko zaizkio bere partehartzea eta interbentzioa bermatzeko sindikatuko egitura guztietan baita gera daitezke berrietan (sektoreak, batzordeak, idazkaritzak...) ere.

Emendagilea: Itziar Lopetegui Basterretxea eta Nerea Lekue Tolosa. Bilbo(Bizkaia)

OSOTASUNEAN ARITZEKO, ERAKUNDE EFIKAZA BEHAR

128. PONENTZIA orria.

Hainbat ataletan.

Proposamena:

Kontzeptua euskeraz bakarrik erabiltzea.

PONENTZIAKO KONTZEPTUAK

Congreso	Kongresua
Cosejo Nacional	Kontseilu Nazionala
Secretariado Nacional	Idazkaritza Nazionala
Comité Ejecutivo	Batzorde Exekutiboa
Conferencia de Herrialde	Herrialdeko Konferentzia
Secretariado de Herrialde	Herrialdeko Idazkaritza
Secretariado Comarcal	Eskualdeko Idazkaritza
Union Territorial o Regional	Herrialdeko Konferentzia
Unión Comarcal	Eskualdeko Konferentzia
Unión Local	Herri Biltzarra
Conferencia Sectorial	Konferentzia Sektoriala
Comisión Ejecutiva Sectorial	Batzorde Exekutibo Sekt
Conferencia de Herrialde Sectorial	Herrialdeko Konferentzia Sektoriala
Comisión de Herrialde Sectorial	Herrialdeko Batzorde Sektoriala
Uniones Sectoriales	Biltzar Sektorialak

PROPOSAMENA

Biltzar Nagusia
Biltzar Nazionala
Idazkaritza Nazionala
Komite Exekutiboa
Herrialde Biltzarra
Herrialdeko Idazk
Eskualdeko Idazk
Herrialde Batasuna
Eskualde Batasuna
Herri Biltzarra
Sektoreko Biltzar Naz
Sektoreko BatzordeNaz
Sektoreko Herrialde Batzordea
Sektoreko Herrialde Batzordea.
Batasun Sektorialak

Zergatiak:

Organo betearazle guztien izenak euskaraz bakarrik jasotzea.

Emendagilea: Ponentzia Taldea.

129. 9 orria. 13.ESALDIA.

1.2. Ikuspegi historikoa.

Proposamena

Dagoenaren orde z jarri:" Indarrean dugun errealitatetik abiatuta, lortzeko beharrezkoa den antolakuntzazko

ereduan sakondu behar dugu Langileriaren batasunezko helburuak."

Zergatiak:

Langileriaren batasuna ez zen lortu ez eta LABen sorreran ere. Testu hau nahasgarri gertatzen da, LABen antolakuntzazko ereduaren aldaketa langileriaren batasunari egindako arbuioztat agertaraztean.

Emendagilea: Jose Alcedo Gil. Bilbo (Bizkaia)

130. 10 orria. 19 ESALDIA

1.3. Egitura sindikalaren garapenean, nortasun adierazgarrien proiektzioa.

Proposamena:

Esaldia kentzea.

Zergatia:

Puntu honek, gure nortasun adierazgarriari buruz erretorika eta nahasmendua besterik ez du ekartzen.

Emendagilea: Ana Fernandez eta Agustin Egaña. Bilbo (Bizkaia)

131. 10 orria. 20 ESALDIA

1.3. Egitura sindikalaren garapenean, nortasun adierazgarrien proiektzioa.

Proposamena:

Esaldia kentzea.

Zergatia:

Aurrekoak bera.

Emendagilea: Ana Fernandez eta Agustin Egaña. Bilbo (Bizkaia)

132. 10 orria. 20 ESALDIA

1.3. Egitura sindikalaren garapenean, nortasun adierazgarrien proiektzioa.

Proposamena:

Esaldia kentzea.

Zergatia:

Gure gizartearen aniztasun ideologikoak ez du zehazten gure antolamenduaren eredia.

Emendagilea: Jose Alce Gil. Bilbo (Bizkaia)

133. 12 orria. ESALDI berria.

1.5. Partaidetza era eraldakuntza sozialaren ikuspegitik antolamenduaren baitan eragina izan lezeketen ondorioak Partaidetza eta militantzi krisia.

Proposamena:

32. esaldiaren bukaeran erantsi hurrengoa:

"Era berean, ENAMEk Sindikatuan zuzenean eragiten duen tenkadura sozial haundiagoaren ondorioak nega-

tibotzat jotzen ditugu, batetikan afiliatuak uxatzen dituelako eta bestetik inplikazio maila apalagoa adierazten duelako orohar."

Zergatiak:

Emendagilea: Ana Fernandez eta Agustin Egaña. . Bilbo (Bizkaia)

134. 12 orria. 36 ESALDIA

2. LAB eraikuntza nazionalan.

Proposamena:

"Eragile ipintzen gaitu"tik bukaeraraino kendu eta haren ordez jarri "Euskal Eraikuntza Nazionalaren prozesuan eragile sozial ipintzen gaitu"

Zergatiak:

Emendagilea: Ana Fernandez eta Agustin Egaña. . Bilbo (Bizkaia)

135. 12 orria. 36 ESALDIA

2. LAB eraikuntza nazionalan.

Proposamena:

Esaldia kendu, eta haren ordez jarri: "LAB, Erakunde Sindikala den aldetik beste edozein erakundearekiko erabat autonomoa izango da. Euskal Nazioaren Eraikuntzan izango duen partaidetza, Euskal Herrian dauden gairontzeko erakunderekin berdintasunez egingo da, horiekiko mendekotzazko inungo loturarik gabe".

Zergatiak:

Emendagileak: Eraiki (14 afiliatu) Goierrri-Behea (Gipuzkoa)

136. 12 orria. 37 ESALDIA

2. LAB eraikuntza nazionalan.

Proposamena:

Esaldia kendu.

Zergatiak:

Emendagileak: Eraiki (14 afiliatu) Goierrri-Behea (Gipuzkoa)

137. 12 orria. 38 ESALDIA

2. LAB eraikuntza nazionalan.

Proposamena:

Esaldia kendu.

Zergatiak:

Emendagileak: Eraiki (14 afiliatu) Goierri-Behea (Gipuzkoa)

138. 12 orria. 38 ESALDIA

2. LAB eraikuntza nazionalen.

Proposamena:

Esaldia kendu.

Zergatiak:

Emendagileak: Agustin Egaña eta Ana Fernandez. Bilbo (Bizkaia)

139. 12 orria. 38.ESALDIA.

2. LAB eraikuntza nazionalen.

Proposamena:

Kendua esaldia eta jarri: "ausnarketa prozesu honetatik sortu den orientasio berriak beste eredu organizatibo baten beharra azpimarratzen du".

Zergatiak:

KASen egituraketa berria proposatzen den antolamendu eta militantzi mota ez da LABen kongresuan eztabaidan jartzekoa.

Emendagileak: Jose Alcedo Gil. Bilbo (Bizkaia)

140. 13 orria. 39.ESALDIA.

2. LAB eraikuntza nazionalen.

Proposamena.

Azken puntuaren ondoren erantsi: "Horrenbestez, erakunde autonomo, independente eta ENAMen erakundeekin menpekotzasko inungo loturarik gabeko erakundetzat definitzen du LABek bere burua."

Zergatiak:

Emendagileak: Ana Fernandez eta Agustin Egaña. Bilbo (Bizkaia)

141. 13 orria. 39.ESALDIA.

2. LAB eraikuntza nazionalen.

Proposamena.

Esaldia kentzea.

Zergatiak:

Emendagileak: Eraiki (14 afiliatu). Goierri-Behea. (Gipuzkoa)

142. 13 orria. 40.ESALDIA.

2. LAB eraikuntza nazionalan.

Proposamena.

Esaldia kentzea.

Zergatiak:

Emendagileak: Eraiki (14 afiliatu). Goierri-Behea. (Gipuzkoa)

143. 16 orria. 65.ESALDIA.

4. Sekzio sindikalak, enpresa batzordeak eta pertsonal batzordeak.

Proposamena:

Esaldia kendu, eta haren ordeaz jarri: "Horretatik, enpresetako langile-kuadroen premia berrietan trebakuntza-hutsunea ondorioztatu da eta, era berean, eskualde eta sektore alorretako lanetan ahultze progresiboa dakarren alternatibenganako konfidentza galdu da. Partaidetza- gabezia honen ondorioz, delegazionismoa dator."

Zergatiak:

Burokratismo eta delegazionismoak aztertzen ez diren bere arrazoiak ditu Militantzeko borondaterik eza arrazoi dela ez da egia.

Emendagilea: Jose Alcedo Gil. . Bilbo (Bizkaia)

144. 16 orria. 73 ESALDIA.

4. Sekzio sindikalak, enpresa batzordeak eta pertsonal batzordeak.

Proposamena:

Esaldia kendu eta haren ordeaz jarri hurrengoa:

LANGILE BATZARRAK, ENPRESA BATZORDEAK ETA PERTSONAL BATZORDEAK

"Langileen batzarra da, gure iritziz, lantegietako adierazpen organo gorena. Gure sekzio sindikalek honelako batzarrei eskeini behar diete geure lan ildoak, honela enpresa batzordeak eta pertsonal batzordeak baino erabaki organo goragoak izan daitezten."

Zergatiak:

LABek Langileen Batzarrak bultzatu behar ditu erabaki organutzat.

Emendagilea: Autoridad Portuaria de Pasaiaiko SS. Oarso-Bidasoa (Gipuzkoa)

145. 16 orria. 74 ESALDIA.

4. Sekzio sindikalak, enpresa batzordeak eta pertsonal batzordeak.

Proposamena:

Esaldia kendu eta jarri hurrengoa: "Aurreko premisetatik abiatuta gure sekzio sindikales pertsonal batzorde eta enpresa batzordeetan aktiboki eskuhartuko dute, organu unitari horietan bere lan ildoak proiektatuz baina erabaki nagusiak hartzeko unean Langileen Batzarrak nagusitasuna izan dezan saiatuz, organo honetan eztabaidatu eta hartu behar direlako erabakiak".

Zergatiak:

Aurreko enmendakinekoak.

Emendagilea: Autoridad Portuaria de Pasaia SS. Oarso-Bidasoa (Gipuzkoa)

146. 17. orria. 82. ESALDIA.

Lurralde-egitura dinamiko eta eraginkorra osatzeko bidean

Proposamena:

Kendu "(aholkularitza sindikala)"

Zergatiak:

Zerbitzuak ezin murriz daiteke aholkularitza sindikal hutsera, honek beste elementu bat izan behar baitu.

Proposatzaileak: Jose Alcedo Gil eta Juanjo Robdriguez Horna. Bilbo (Bizkaia)

147. 18 orria. 87. ESLADIA.

5.3. Herrialdeak eta eskualdekako egituraketa.

Proposamena:

Kendu Leintz eskuladea eta txertatu Deba eskualdean.

Erantsi Gipuzkoan beste eskualde bat: Baztan-Bidasoa.

Zergatiak:

Lurralde egituraketaren arrazionamendu definizio eta garapen prozesuan, Gipuzkoa eta Nafarroako eskualdetako batzuk ostera formulatu behar direlako.

Deba biak eskualde bakar batean osatzeko aukera Gipuzkoako Herrialdeko Idazkaritzan eztabaidatu eta onetsi da.

Baztan-Bidasoa berezko eskualdean Irun, Bera eta Elizondo sartzen dira eta honakoa ere dagozkien herrialdeetan eztabaidatu eta onetsi da.

Proposatzaileak: Ponentzi Taldea

148. 19 orria. 95. ESALDIA.

5.4. Lurralde-egituraketa.

Proposamena:

"Sindikatura Hedatzeko arduraduna kentzea."

Zergatiak:

Ez badago ponentzia osoan barrena ardura hau ahalbideratzen du; Sindikatu osoaren edo antolakuntzarako arduradunaren lana izan liteke.

Emendagilea: Jose Alcedo Gil. Bilbo (Bizkaia)

149. 19 orria. 95. ESALDIA.

5.4. Lurralde-egituraketa.

Proposamena:

Emakume alorreko ordezkari bat eranstea.

Zergatiak:

Kongresua amaitutakoan, egiturari dagozkion maila batzu garatu nahi dira (sektoreak, areak, batzordeak...) Emakumearen alorrean ezinbestekotzat iruditzen zaigu honelako eta sor daitezken bestelako organuak garatutakoan, emakumeen ordezkari, partaidetza eta eskuhartzea bermatu beharko dela.

Emendagilea: Karmen Amezua eta Nerea Lekue. Bilbo (Bizkaia)

150. 19 100.ESALDIA

5.4. Lurralde-egituraketa.

Proposamena:

Kendu Aholkularitza Juridikoaren Arduraduna.

Zergatiak:

Ardura hau beteko lukeena ez dago garbi abokatu, graduatu ala militante koordinatzailea (bere aholkulari juridiko eta guzti) litzatekeen.

Emendagilea: Jose Alcedo Gil eta Jokin Ganboa. Bilbo (Bizkaia)

151. 19 orria, 100 ESALDIA.

5.4. Lurralde-egituraketa.

Proposamena:

Erantsi "emakumearen alorreko ordezkari bat".

Zergatiak:

Kongresua amaitutakoan, egiturari dagozkion maila batzu garatu nahi dira (sektoreak, areak, batzordeak...) Emakumearen alorrean ezinbestekotzat iruditzen zaigu honelako eta sor daitezken bestelako organuak garatutakoan, emakumeen ordezkari, partaidetza eta eskuhartzea bermatu beharko dela.

Emendagilea: Karmen Amezua eta Nerea Lekue. Bilbo (Bizkaia)

152. 20 orria. 106 ESALDIA.

5.4. Lurralde-egituraketa.

Proposamena:

Erantsi "Emakumearen alorreko ordezkari bat"

Zergatiak:

Aurrekoak berdinak.

Emendagilea: Karmen Amezua eta Nerea Lekue. Bilbo (Bizkaia)

153. 20 orria. 106 ESALDIA

5.4. Lurralde egituraketa.

Proposamena:

Erantsi "Negoziazio Kolektiboaren arduraduna" izaera koiunturalez.

Zergatiak:

Herrialdetan negoziazio kolektiboan eskuhartzeko gaur egun Sektoreetako Biltzarrek daukaten gaitasuna (sakonki izaritu gabekoa) eta garapen maila kontutan izanik, Herrialdetako Idazkaritzetan ardura hau sartzeari premiazkoa deritzogu, oraingo egoerak agintzen duen koiunturaltasuna halako izaki.

Emendagilea: Ponentzi Taldea.

154. 20 orria. 106 ESALDIA.

5.4. Lurralde egituraketa.

Proposamena:

Erantsi "Herrialdeko Sektoreetako arduradunak".

Zergatiak:

Sektore egituraketa lurralde egituraren txertatzeko beharra.

Emendagilea: Joxean Otsa De Alaiza . Donostia (Gipuzkoa)

155. 2. orria. 106 ESALDIA.

5.4. Lurralde egituraketa.

Proposamena:

Kendu "Sozioekonomiaren arduraduna".

Zergatiak:

Kargu honen ardurak Herrialdeko Idazkaritzan ez daudela ere, ez ta ulergarri zergaitik den organoaren osakide.

Emendagilea: Jose Alcedo Gil . Bilbo (Bizkaia)

156. 20 orria. 107 ESALDIA.

5.4. Lurralde egituraketa.

Proposamena:

Erantsi, osakidetzat : "Nazio eta herrialde mailako kabineteak eta nazio eta sektoreetako arduradunak (Idazkaritza Nazionalako osakide)";

Zergatiak:

Honelako ardurak organoan sartzeari bidezkoa deritzogu dagokion herrialdearekin daukan lotura bakarra berarela kontutan izanik.

Emendagilea: Ponentzi Taldea

157. 20 orria. 107 ESALDIA.

5.4. Lurralde egituraketa.

Proposamena:

Erañsi "Sektoreetako Batzordeak eta Kabineteak"

Zergatiak:

Alderik ez dadin egon liberatuak eta lurraldetakoen artean.

Emendagilea: Joxean Otxoa De Aleiza Donostia (Gipuzkoa)

158. 22 orria. 126 ESALDIA.

6.4. Sektorekako egituraketa.

Proposamena:

Kendu "Telefónica" eta jarri "Telekomunikazioak".

Zergatiak:

Telekomunikazio sektorean Telefónica baino enpresa gehiago ari dira eta horiek guztiak adierazitako kontzeptuan sartuko lirateke.

Emendagilea: Koldo Barcena.. Bilbo (Bizkaia).

159. 23. orria. 123 ESALDIA

6.4. Sektorekako egituraketa

Proposamena:

Emakume alorreko ordezkari bat erañtea.

Zergatiak:

Kongresua amaitutakoan, egiturari dagozkion maila batzua garatu nahi dira (sektoreak, areak, batzordeak...) Emakumearen alorrean ezinbestekotzat iruditzen zaigu honelako eta sor daitezken bestelako organuak garatutakoan, emakumeen ordezkari, partaidetza eta eskuhartzea bermatu beharko dela.

Emendagilea: Karmen Amezua eta Nerea Lekue. Bilbo (Bizkaia)

160. 24 orria. 139 ESALDIA.

6.4 Sektorekako egituraketa.

Proposamena:

Kendu "osakera hau izango luke" eta jarri "bere osakera apikako eginkizunen arabera joerretariko bati hurbil lekioko".

Zergatiak:

Sektorean sektoreko errealitatera egokitzea.

Emendagilea: Joxean Otxoa De Aleiza. . Donostia (Gipuzkoa).

161. 24 orria. 143.ESALDIA.

6.5.Sektorearteko areak.

Proposamena:

Esaldiaren bukaeran erantsi: "Organo honetan agerpena duten sektore horien edozein arduraren bitartez".

Zergatiak:

Esaldiaren hasierako idazkerak akatsera eraman gaitzake eta, Idazkaritza Nazionalaren osakerari dagokionez, Zuzendaritza Nazionaleko organuarekiko, Serbitzu Publikoen alorraren kokapena nolakoa behar duen zehaztu eta argitzeari beharrezkoa deritzegu.

Emendagilea: Ponentzi Taldea.

162. 24 orria. 143.ESALDIA.

6.5.Sektorearteko areak.

Proposamena:

Azken aldean erantsi: "eta beste inorekin elkarbanatu gabe".

Zergatiak:

Hain zabala den area bat zuzendu eta koordinatzeko beste egitekorik gabeko ardura beharrezko du. Kontutan behar da area Intersektorial honek, 200 baino komenio gehiago, enpresa, sektore, Baskongada, Nafarroa, Estatal, e.a. ehundaka negozioazio mahai biltzen dituela.

Sektoreak dinamizatu eta gure eskuhartzeak homogenotzeko gai izango diren koadro sindikalak sortzeko pausoak ematea premiazkoa da.

Irakaskuntza, Osakidetza eta Administrazioako gaurko arduradunak lanez gainezka daude (gaude). Sektoria-larteko ardura gaineratzen bada, ezinezkoa eskatzea da.

Emendagilea: Juanjo Aranburu. Gasteiz (Araba)

163. 26 orria. ESALDI berria.

7.2. Antolamendua.

Proposamena:

Esaldi berria erantsi: "Sindikatuaren egitura guzietan egingo diren ekimen desberdinen dinamizazio eta biderraketak erraztuko dituen politika sozialaren arearen bidez, I.N.ean koordinatuko litzake area hau".

Zergatiak:

Sindikato osoan politika sozialaren jarduera zabalagoa eta zenbait areekin behar duen harreman etengabe eta jaliotsua kontutan harturik, politika sozialaren ardura zehaztea beharrezkoa jotzen dugu. Beraz, LAB Langabe-tuaken eskuhartze area, ardura honen bidez koordinatuko litzateke I.N.an

Emendagilea: Ponentzi Taldea

164. 28 orria. 176 ESALDIA

8.1. Organo konfederalak.

Proposamena:

Aldatu: "politiko ekonomiko eta soziala", ordez 2 ardura bereiz: "politika ekonomikoa" eta "politika soziala".

Zergatiak:

Beharrezkoa da ardura bikoizketa hau.

Emendagilea: Ponentzi Taldea.

165. 28 orria. 176 ESALDIA.

8.1. Organu konfederalak.

Proposamena:

Erantsi: "Finantzen eta diruzaintza ardurak"

Zergatiak:

Ponentzia finantza, diruzaintza eta abarrei ematen dien garrantzia ikusirik beharrezkoa jotzen da ardura hau sortzea.

Emendagilea: Ponentzi Taldea.

166. 28 orria. 176 ESALDIA.

8.1. Organu konfederalak.

Proposamena:

Erantsi: "Eskuhartze instituzional eta garapen sektorialaren koordinazioaren ardura"
Kendu: "Politika instituzionala"ren ardura.

Zergatiak:

Gure iritziz politika instituzionalaren ardurak, planteatuta dagoen bezala bestelako tajuera hartu beharko luke eta, honenbestez, area edo ardura zehatz bakoitzak beraren esparru instituzionalean eskuhartu beharko lukeela; nolana ere, ekinbide sindikaleko perspektiba bateratutik, osotasunezko politika instituzionalaren koordinazioa egin beharko litzateke.

Bestaldetik sektoreen arteko koordinazioa I.N.aren baitan berarizko arduratzat sortzeari bidezkoa deritzogu; ardura hau, bai ekinbide sindikaleko ardurak bai antolakuntzak alor honetan bete behar dituzten eginkizun eta lanen osagarria izango litzateke.

Horrenbestez, premiazkoa ikusten dugu I.N.ean bi kontuak koordinatuko duen ardura sortzea, ekinbide sindikal izaerituago eta integratua lortu ahal izan dezan organu honek.

Emendagilea: Ponentzi Taldea.

167.28-29 orria. 175-176-181-184-197-247.

8.1 Organu konfederalak. 9.1. Arduren ezaugarriak. 11. Koadro sindikalak.

Proposamena:

"Ardura Exekutiboak" ordez "Ardura Nazionalak" jarri.
176 atalean "Eskuhartze Areak" erantsi.

Zergatiak:

Batzorde Exekutiboaren baitan ardurak oker har ez ditzagun, ardura nazional bezala hobe dela uste dugu.

Emendagilea: Ponentzi Taldea.

168. 27 orria 184 ESALDIA.

8.1. Organu Konfederalak.

Proposamena:

Erantsi "Finantza eta Diruzaintzaren ardura" eta "Garapen Sektorial eta Eskuhartze Instituzionala" ren koordina-
natzailea. Kendu "Politika Instituzionalaren ardura".

Zergatiak:

Lehen esanda daude.

Emendagilea: Ponentzi Taldea.

169. 20 orria. 106 ESALDIA.

5.4. Lurralde egituraketa.

Proposamena:

Erantsi "Emakumearen alorreko ordezkari bat"

Zergatiak:

Kongresua amaitutakoan, egiturari dagozkion maila batzu garatu nahi dira (sektoreak, areak, batzordeak...)
Emakumearen alorrean ezinbestekotzat iruditzen zaigu honelako eta sor daitezken bestelako organuak gara-
tutakoan, emakumeen ordezkari-tza, partaidetza eta eskuhartzea bermatu beharko dela.

Emendagilea: Karmen Amezua eta Nerea Lekue. Bilbo (Bizkaia)

170. 39 orria. 273 ESALDIA.

14. Formazioa.

Proposamena:

Erantsi "eta afiliatuak"

Zergatiak:

Sindikatoarentzat, lehen oinarria formaziorako afiliatuak izan behar dute.

Emendagileak: Jose Alcedo Gil eta Juanjo Rodriguez Horna. Bilbo (Bizkaia)

171. 41 orria. ESALDI BERRIA.

16. Serbitzuak.

Proposamena:

292 esaldiaren ondoren erantsi: "LABek beste beharrekin batera, indar berdinez bultzatuko du Serbitzu Area."

Zergatiak:

Emendagileak: Eraiki. (14 afiliatu) Goierni-Behea (Gipuzkoa)

172. 41 orria. ESALDI BERRIA.

16. Serbitzuak.

Proposamena:

292 esaldiaren ondoren erantsi: "eta afiliatuek eskatuko dituzten mota guzietako erasoei erantzuteko, beharrezko diren bideak jarriko ditu."

Zergatiak:

Emendagileak: Eraiki. (14 afiliatu) Goierri-Behea (Gipuzkoa)

173. 41 orria. Atal berria ESALDIA.

BERRIA.

Proposamena:

Sindikatoaren barnean, pentsamendu eta iritzien korriente eratueterako atea irekitzeko erabakia hartuko du konpromesu honek.

Zergatiak:

Emendagileak: Eraiki. (14 afiliatu) Goierri-Behea (Gipuzkoa)

**Osotasunean aritzeko
erakunde efikaza behar**